**2021EKO MARTXOAREN 25EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA**.

.

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 25 DE MARZO DE 2021**

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea. | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa. | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Hogeita bost | **DIA**: Veinticinco |
| **HILABETEA**: Martxoa. | **MES:** Marzo. |
| **URTEA**: Bi mila eta hogeita bat | **AÑO**: Dos mil veintiuno |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko zazpiak | **HORA DE COMIENZO**: Diecinueve horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa. | **CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena. | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |
| **UDALBURUA/PRESIDENTA**:<br>LEIRE ARTOLA UGALDE | |
| **BILDUAK/REUNIDOS**:<br><br><u>EAJ-PNV</u><br><br>- LEIRE ARTOLA UGALDE<br>- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ<br>- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO<br>- MARIA ELENA RUIZ ZABALA<br>- EDORTA DIAZ DEL RIO<br>- JON OLANO ARRESE<br>- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA<br>- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA<br>- AINARA AYESTARAN ALDASORO<br><br><u>Beasaingo EH Bildu</u><br><br>- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL<br>- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR<br>- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ<br>- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE<br><br><u>Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak</u><br><br>- EVA ALVAREZ ATANES | |

| | |
|---|---|
| - ANGEL REDONDO FERNANDEZ<br><br>**ETORRI GABEAK/AUSENTES**:<br><br>- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL<br><br>- AITOR URDANGARIN IRASTORZA<br><br>**IDAZKARIA/ SECRETARIA:**<br>Itziar Aroztegui Apaolaza | |
| Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak eta Aitziber Yurrebaso Irazustabarrena itzulpen lanak egiten. | En la reunión también han participado la interventora Lurdes Alegría Lasa y Aitziber Yurrebaso Irazustabarrena realizando trabajos de traducción. |
| **1.- AURREKO AKTA**. 2021-02-25ekoa<br><br>2021-02-25eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da. | **1.- ACTA ANTERIOR**. 25-02-2021.<br><br>Tras informar el acta del 25-02-2021 se ha aprobado por unanimidad. |
| **2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**<br><br>a.- KREDITUEN ALDAKETA. KRDITU GEHIGARRIEN 4. ZENBAKIKO ESPEDIENTEA. 2021CRAD0004<br><br>Ezagutzera eman da, Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordeak ontzat emandakoa:<br><br>"*Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:*<br><br>*1.- 4. Kreditu gehikuntzen bidez 875.760,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:* | **2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ANTOLAKUNTZA**:<br><br>a.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE N.º 4 DE CRÉDITOS ADICIONALES.<br><br>Se ha informado la propuesta de Alcaldía con el visto bueno de la comisión de Organización:<br><br>*Debiendo proceder a la realización de los gastos que se relacionan en la propuesta adjunta y ante la inexistencia o insuficiencia de crédito presupuestario para su financiación, esta Alcaldía somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente Propuesta de Acuerdo:*<br><br>*1.- Aprobar inicialmente la modificación de créditos n. 4 en la modalidad de créditos adicionales, financiada tal como se detalla en la documentación que se adjunta, por importe de 875.760,00 euros y cuyo resumen por capítulos es el siguiente:* |

**GASTUAK**

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | 100.000,00 |

| | | |
|---|---|---|
| 6 | Inbertsio errealak / Inversiones reales | 775.760,00 |
| **GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO** | | **875.760,00** |

SARRERAK

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak / Activos financieros | 875.760,00 |
| **FINANTZAZIOA/ FINANCIACIÓN** | | **875.760,00** |

| | |
|---|---|
| *2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.* | 2.- *Someter a exposición pública por espacio de 15 días al efecto de presentar alegaciones, entendiéndose definitivamente aprobada si no se presentara reclamación alguna.* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bilduakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.<br><br>Bozketa eginda, aho batez hasierako onespena eman zaio ondorengo gastu eta kredituen aldaketari eta horiek finantzatzeko proposatzen denari: | En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.<br><br>Sometida a votación, se aprueba inicialmente por unanimidad la siguiente modificación de gastos y créditos y la propuesta de financiación de los mismos: |
| "GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA<br><br>Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta. | "PROPUESTA DE GASTO Y MODIFICACIÓN DE CRÉDITO<br><br>Teniendo en cuenta la urgencia de la realización de los gastos relacionados, cuya ejecución no puede demorarse, la interrupción del ritmo de realización de estos servicios o, en su caso, la disminución del nivel de gestión de los mismos generaría importantes perjuicios, y la insuficiencia o inexistencia de crédito presupuestario para su financiación, se realiza la presente propuesta adecuándola a la estructura presupuestaria vigente. |

| Aurrekontuko kontusaila<br>Partida<br>Presupuestaria | Kontzeptua<br>Concepto | Kredituak<br>Créditos | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak**<br>Actuales | **Aldaketa**<br>Modificación | **Behin betikoa**<br>Definitivo |
| 0243.471.433.10.01 | Dirulaguntzak COVID | 50.000,00 | 100.000,00 | 150.000,00 |
| 0350.622.337.10.02 | Erretiratuen etxe berria | 0,00 | 770.000,00 | 770.000,00 |
| 0261.625.452.20.01 | Kanpoko piszinak: estalkiak | 0,00 | 5.760,00 | 5.760,00 |
| **GUZTIRA /** TOTAL | | 50.000,00 | 875.760,00 | 925.760,00 |

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE FINANCIACIÓN DE CRÉDITOS ADICIONALES**

| Sarreren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak | Baliabidearen kontzeptua | Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak |
|---|---|---|
| 870.01 | Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina | 875.760,00 |
| **GUZTIRA** / TOTAL | | 875.760,00 |

| | |
|---|---|
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:<br><br>Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) jaunak: ados gaude baina erretiratuen etxearen inguruan esan, horrelako eraikinak ekipamendurako erabili behar direla eta ez HAPOaren Aurrerakinean aurreikusten den bezala, lur horretan etxebizitzak egiteko. Animatzen dugu eraikin historikoak herriarentzat erabiltzeko.”<br><br>Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Irizpide horrekin ados egonik, dagoena kontserbatu eta | En el turno de intervenciones se exponen las siguientes opiniones:<br><br>Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): estamos de acuerdo, pero en el caso del edificio del hogar de los jubilados decir que en nuestra opinión este tipo de edificios se deben destinar a equipamiento y no utilizar el terreno para edificar viviendas, tal y como se prevé en el avance del PGOU. Animamos a que los edificios históricos se utilicen para el pueblo. "<br><br>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Estando de acuerdo con este criterio, con la conservación y |

| | |
|---|---|
| birgaitzearekin, Aranealderen kasuan azterketa sakonagoa behar du, baina ikusten ari garena da estrukturalki arazo handiak sortarazten eraikin bat dela. Duela urte batzuk eraikina egonkortzeko neurriak hartu ziren eta testigu batzuk jarrita egon dira egonkortzeko materia sartu ostean, eraikinak bere mugimenduak izan ditu. Ados egonik ere, gure apustua izan da hor etxebizitzak egitea baina kontuan hartuta birgaitzea ez dela bideragarria ikusten."<br><br>Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena. | rehabilitación de lo existente, en el caso de Aranealde necesita un análisis más profundo, pero lo que estamos viendo es que se trata de un edificio que es estructuralmente problemático. Hace unos años se tomaron medidas para estabilizar el edificio y se colocaron algunos testigos después de adoptar medidas para su estabilización, pero el edificio ha sufrido sus movimientos. Aun estando de acuerdo, nuestra apuesta ha sido la de construir viviendas, pero teniendo en cuenta que no se ve viable la rehabilitación. "<br><br>Debatido suficientemente el asunto, se somete a votación siendo aprobada la propuesta por unanimidad. |
| b.- <u>ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK EAMTEKO LANKIDETZA-HTZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA</u>. 2021PEBO0018<br><br>Ezagutzera eman da ondorengo Antolakuntza batzordeko proposamena: | <u>B.- PROTOCOLO DE ADHESIÓN A LOS CONVENIOS DE COLABORACIÓN PARA LA PRESTACIÓN MUTUA DE SOLUCIONES BÁSICAS DE ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA</u><br><br>Se ha informado la siguiente propuesta de la comisión de Organización: |
| *GAIA: ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA.*<br><br>*AURREKARIAK*<br><br>*Euskal administrazio guztiek, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bai Foru Aldundiek eta toki-erakundeek, kalitate oneko zerbitzu eraginkor batzuk eskaini behar dizkiete herritarrei, kudeaketa publikoan baliabide publikoak esleituz eta erabiliz eta administrazio-izapidetzea erraztuz eraginkortasuna bilatu behar dute, administrazio-bikoiztasunak saihestu edo deuseztatu behar dituzte eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete behar dute, gainerako administrazio publikoekin* | *ASUNTO: PROTOCOLO DE ADHESIÓN A LOS CONVENIOS DE COLABORACIÓN PARA LA PRESTACIÓN MUTUA DE SOLUCIONES BÁSICAS DE ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA SUSCRITOS POR LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI CON LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO EL 24 DE MARZO DE 2017 Y CON LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA EL 5 DE DICIEMBRE DE 2018.*<br><br>*ANTECEDENTES*<br><br>*Todas las administraciones vascas, tanto la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi como las Diputaciones Forales y las Entidades Locales, tienen entre sus obligaciones el ofrecimiento de unos servicios efectivos y de calidad para la ciudadanía, la búsqueda de la eficiencia en la gestión pública con la asignación y utilización de los recursos públicos y la simplificación en la tramitación administrativa, evitar o eliminar duplicidades administrativas y cumplir la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, de conformidad con los principios de participación, objetividad,* |

| | |
|---|---|
| *jardutean partaidetza-, objektibotasun-, gardentasun-, lankidetza-, elkarlan- eta koordinazio-printzipioei jarraituz, beren helburu komunak erdiesteko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 3. eta 140. artikuluetan ezartzen duen moduan; halaber, beren gobernamendu publikoko ereduan aurrera egin behar dute, administrazio publiko efizienteagoa, eraginkorragoa, hurbilagoa, gardenagoa eta parte-hartzaileagoa eraikitzeko.* | *transparencia, cooperación, colaboración y coordinación en la actuación con el resto de las Administraciones Públicas para el logro de sus fines comunes según establecen los artículos 3 y 140 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; y avanzar en su modelo de gobernanza pública para construir una administración pública más eficiente, eficaz, cercana, trasparente y participativa.* |
| *Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da administrazio publikoen arteko elkarlana areagotzea, lankidetza-hitzarmenak sinatzen dituzten alderdiek hartzen dituzten konpromisoez eta baldintzez, eta, zehazki, euskal administrazioen arteko komunikazio-sare bat izatea, haien artean informazioa trukatzeko sistemak eraikitzea administrazio-prozeduran dokumentuak edo datuak eman beharra saihesteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, administrazioen arteko eta herritarrekiko komunikazio- eta jakinarazpen-sistema bat garatzea eta identifikazio eta sinadura elektronikorako sistema eta aplikazio informatikoak partekatzea eta berrerabiltzea, ordainketetarako, kontratazio publikorako eta beren eskumeneko beste edozein administrazio-jarduketarako.* | *Para conseguir estos objetivos es necesario intensificar la cooperación interadministrativa entre las Administraciones Públicas con las condiciones y compromisos que asumen las partes que suscriben los convenios de cooperación y en concreto, mantener una red de comunicaciones entre las administraciones vascas, construir sistemas de intercambio de información entre ellas que eviten la necesidad de aportar documentos o datos en el procedimiento administrativo, conforme a lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, desarrollar un sistema de comunicación y notificación entre las administraciones y con la ciudadanía, y compartir y reutilizar sistemas y aplicaciones informáticas para la identificación y firma electrónica, para la realización de pagos, para la contratación pública y para cualquier otra actuación administrativa de su competencia.* |
| *Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenetan adostutako administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbide teknologikoetan eta hitzarmen hauetan xedatutako administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbide teknologikoetan zein etorkizunean adosten direnetan parte har dezaten, mekanismo egoki bat ezarri behar da, toki-erakunde horiek aipatutako hitzarmenei erraz atxiki ahal izateko, zerbitzu bakoitzean ezarritako betebeharrak edonola ere beteko direla bermatzen duen prozedura baten bidez.* | *Que, con la finalidad de que las Entidades Locales ubicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco puedan ser partícipes de las soluciones tecnológicas básicas de administración electrónica acordadas en los Convenios suscritos con la Administración General del Estado y la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de las soluciones tecnológicas básicas de administración electrónica previstas en los convenios, así como de las que se acuerden en el futuro, es necesario establecer un mecanismo que posibilite, de forma sencilla, que dichas Entidades Locales puedan adherirse también a los citados Convenios a través de un procedimiento que garantice, en todo caso, el cumplimiento de las obligaciones establecidas en cada servicio.* |
| *Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016* | *Asimismo, de conformidad con lo establecido en el artículo 19. 4 de la Ley 2/2016, de 7 de abril,* |

| | |
|---|---|
| *Legearen 19.4 artikuluan ezartzen denarekin bat eginez, foru-organo eskudunei dagokie beren lurralde historikoko udalerriei laguntza teknikoa ematea, legeek esleitutako eskumenen era-ginkortasun osoa bermatzeari begira.*<br><br>*PROPOSAMEN AKORDIOA*<br><br>*Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetza-hitzarmenekiko atxikimendu protokoloa azterturik, Antolakuntza Batzordeak ondorengo akordio proposamena egiten dio udalbatzari :*<br><br>*<u>Lehenengoa</u>.- Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko lankidetza hitzarmenekiko atxikimendu protokoloa onartzea.*<br><br>*<u>Bigarrena</u>.- Alkateari baimendu Beasaingo Udalaren izenean atxikimendu protokoloa sinatzeko.*" | *de Instituciones Locales de Euskadi, corresponde a los órganos forales competentes la asistencia técnica a los municipios de su Territorio Histórico para garantizar la efectividad plena de las competencias atribuidas por las leyes.*<br><br>*PROPUESTA DE ACUERDO*<br><br>*Analizado el protocolo de adhesión a los convenios de colaboración para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica suscritos por la administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi con la Administración General del Estado el 24 de marzo de 2017 y con la Diputación Foral de Gipuzkoa el 5 de diciembre de 2018, la Comisión de Organización eleva al Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*<br><br>*Primero.- Aprobar el protocolo de adhesión a los convenios de colaboración para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica.*<br><br>*Segundo.- Facultar a la Alcaldesa para la firma del protocolo de adhesión.”* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.<br><br>Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena. | En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.<br><br>Tras realizar la votación se ha aprobado por unanimidad. |
| **<u>3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK</u>**:<br><br>a.- <u>MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONENTZAKO BEASAINGO LOINATZ EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA PARTZIALKI ETENDA EGOTEAGATIK ORDAINKETA.</u> 2016BIBO0028<br><br>Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko ondorengo proposamena: | **<u>3.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE CIUDADANÍA</u>**:<br><br><u>A.- ABONO POR LA SUSPENSIÓN PARCIAL DEL SERVICIO DE USO Y GESTIÓN DEL CENTRO DE DÍA LOINATZ PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA.</u><br><br>Se ha dado a conocer la siguiente propuesta de la Comisión de Ciudadanía: |
| **“***Gaia: Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza* | *Asunto: Servicio de uso y gestión del centro de día Loinatz para personas mayores en situación de dependencia y servicio de ayuda domiciliaria* |

| | |
|---|---|
| *zerbitzua. Kontratua partzialki etenda egoteagatik ordainketa.*<br><br>*AURREKARIAK*<br><br>*I.-2020-06-29. Kontratuaren aldaketari buruzko erabakia:*<br><br>*"<u>Lehenik-</u> 2020-04-08ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartutako kontratuaren etenaldia altxatzea Eguneko Zentroari dagokionez. Hura berriro irekitzea ahalbidetzea, beharrezko babes-neurriak hartu ondoren.*<br><br>*Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio Udalari zerbitzua noiz jarri den martxan.*<br><br>*<u>Bigarrena.-</u> Jarraian aipatzen den moduan, kontratua aldatzea, eguneko zentroaren prestazioagatik ordaindu beharreko prezioa ezartzeko irizpideari dagokionez:*<br><br>*Loinatz Eguneko Zentroa berriz irekitzen denetik (ziurrenik, ekaina) Gipuzkoako Foru Aldundiak zentroen ohiko erabileraren ehunekoa % 100ean baimentzen duen arte, Beasaingo Udalak erreferentzia gisa hartuko du Goxara SLri Eguneko Zentroaren kudeaketa zerbituagatik ordaintzeko, 2020/03/13an zeuden erabiltzaile kopurua (18 pertsona lanegunetan eta 10 asteburuan eta jaiegunetan).*<br><br>*<u>Hirugarren.</u> Erabaki hau kontratistari helaraztea, eta erabakiaren aurka jar daitezkeen errekurtsoak adieraztea."*<br><br>*II.- 2020-10-29. Kalte-ordainak ordaintzeari buruzko erabakia:*<br><br>*"<u>Lehenengoa.</u> GOXARA, S.L.ri eguneko zentroko langileen soldata-gastuen kalte-ordain gisa honako kopuru hau ordaintzea: 6.691,74€. Kopuru hori honela desglosatzen da:*<br><br>*1.- soldatak: 4.892,64 €, martxoaren 14tik 31ra.*<br><br>*2.- Gizarte Segurantzako kuotak: 1.799,10 €, martxoaren 14tik 31ra.*<br><br>*<u>Bigarrena.</u> Gipuzkoako Foru Aldundiak Udari ordaindutako kopurua ( 33748,34€) GOXARA S.L.ri transferitzea, plaza-erreserba eta langileak* | *en el municipio de Beasain. Abono por suspensión parcial del contrato.*<br><br>*ANTECEDENTES*<br><br>*I.- 29-06-2020. Acuerdo de modificación de contrato:*<br><br>*"<u>Primero. -</u> Levantar la suspensión del contrato en lo que al Centro de Día se refiere acordada mediante acuerdo plenario del 8-04-2020 y permitir la reapertura del mismo, una vez se dispongan de las medidas de protección necesarias.*<br><br>*La contratista deberá comunicar por escrito al Ayuntamiento, la fecha de la puesta en marcha del servicio.*<br><br>*<u>Segundo</u>. - Modificar el contrato en cuanto al criterio para establecer el precio a abonar por la prestación del Centro de Día se refiere, de la manera que se indica:*<br><br>*Desde la fecha de reapertura del Centro de Dia Loinatz (previsiblemente en el presente mes de junio), hasta que la Diputación Foral de Gipuzkoa autorice el porcentaje de uso habitual de los centros al 100%, el Ayuntamiento de Beasain tomará como referencia para abonar a Goxara S.L. por el servicio de gestión del Centro de Día, el número de personas usuarias a fecha 13-03-2020. (18 personas en días laborables y 10 el fin de semana y festivos).*<br><br>*<u>Tercero.</u> Dar traslado del presente acuerdo a la contratista con indicación de los recursos que contra la misma cabe interponer."*<br><br>*II.- 29-10-2020. Acuerdo relativo a pago de indemnización*<br><br>*"<u>Primero</u>. Abonar a GOXARA, S.L., en concepto de indemnización por los gastos salariales de las trabajadoras del centro de día la cantidad de: 6.691,74€, de los que:*<br><br>*1.- Salarios: 4.892,64€, del 14 al 31 de marzo.*<br><br>*2.- Cuotas Seguridad Social:1.799,10 €, del 14 al 31 de marzo.*<br><br>*<u>Segundo.</u> Transferir a GOXARA, S.L., la cantidad abonada por la Diputación Foral de Gipuzkoa al Ayuntamiento (33.748,34€) en concepto de reserva* |

| | |
|---|---|
| *eskualdeko egoitzetara eskura jartzeagatik. Desglosea ondorengoa da:*<br><br>*1.- 16.405,73€ apirilari dagozkio.*<br><br>*2.- 17.342,61€ maiatzari dagozkio.*<br><br>Hirugarrena. *Ekaineko hilabeteak, martxoaren bigarren hamabostaldiak izan duen trataera berdina izango du, baina horretarako beharrezkoa da kontratistak langileen soldaten ordainketa eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34.1 artikuluak aipatzen dituen gastuak justifikatzea.”*<br><br>*III.- 2020-12-11. GOXARA S.L.enpresak ekaina eta uztailari dagozkion gastuen ordain-agiriak aurkeztu digu.*<br><br>*IV.- 2021-02-01. GOXARA S.L.enpresak aurkeztutako eskaerari sarrera ematen zaio, bertan eskatzen da uztailari dagokion ordainketa fakturazio bitartez egitea kalte-ordainketa tratamendua izan beharrean. 2020ko uztailaren 11tik abuztuaren 2ra bitarteko faktura aurkeztu du, 20.373,48€koa, eguneko zentroko erabiltzaileei zerbitzua beraien etxeetan eman duelako.*<br><br>*V.- 2021-03-03. Alkateak GOXARA S.L. enpresari egindako errekerimendua, ekaineko aparteko ordainsaria ordaindu izana eta erantzukizun zibileko asegurua (Caser) Beasaingo Loinatz eguneko zentroko zerbitzuari dagokiola justifikatzeko.*<br><br>*VI.- 2021-03-04. GOXARA S.L.k ekaineko aparteko ordainsaria ordaindu izanaren justifikazioa aurkeztu du, baina ez erantzukizun zibilari buruz eskatutakoa.*<br><br>*VII.- Eguneko zentroko irekiera:*<br><br>*Loinatz eguneko zentroa 2020-07-08an irekitzea aurreikusita zegoen, baina uztailaren 6an Gipuzkoako Foru Aldundiak Ordizian izandako Covid-19 foko barreiatuaren aurrean, eguneko zentroa ez irekitzeko agindu zuen. Ondoren, zenbait mezu elektroniko bidali dira eguneko zentroa itxita egon dadin; uztailaren 29an, posta elektronikoz jakinarazi zen Gipuzkoako eguneko* | *de plaza y la puesta a disposición del personal para los centros residenciales de la comarca, de los que:*<br><br>*1.- 16.405,73 €, corresponden al mes de abril.*<br><br>*2.- 17.342,61€, corresponden al mes de mayo.*<br><br>*Tercero.* *El mes de junio y sucesivos hasta la apertura del Centro de Día Loinatz, recibirá igual tratamiento que la segunda mitad del mes de marzo, pero para ello se precisa justificar por parte de la contratista el pago de salarios de las trabajadoras y los gastos a los que hace referencia el art. 34.1 del Real Decreto Ley 8/2020 de 17 de marzo.”*<br><br>*III.- 11-12-2020. GOXARA S.L. presenta justificación de los pagos realizados en los meses de junio y julio.*<br><br>*IV.- 1-02-2021. Se da entrada a la solicitud de GOXARA S.L. en la que se pide que el pago del mes de julio se realice mediante facturación y no con tratamiento de indemnización. Aporta factura del período 11 de julio a 2 de agosto de 2020, por importe de 20.373,48€, por prestación del servicio a las personas usuarias del centro de día en sus domicilios.*<br><br>*V.- 3-03-2021. Requerimiento de la Alcaldesa a GOXARA S.L. para que justifique el pago de la paga extra del mes de junio y que el seguro de responsabilidad civil (Caser) corresponde al servicio del centro de día Loinatz de Beasain.*<br><br>*VI.- 4-03-2021. GOXARA S.L. presenta justificación de pago de la paga extra de junio pero no lo solicitado respecto a la responsabilidad civil.*<br><br>*VII.- Apertura del centro de día:*<br><br>*La apertura del centro de día Loinatz estaba prevista para el día 8-07-2020 pero ante el foco diseminado de Covid-19 en Ordizia, el día 6 de julio Diputación Foral de Gipuzkoa ordena no abrir el centro de día Loinatz. Con posterioridad se han remitido varios correos electrónicos para que el centro de día se mantenga cerrado; el 29 de julio se comunica por correo electrónico la Orden Foral de mantener cerrados los centros de* |

| | |
|---|---|
| *zentroak itxita edukitzeko Foru Agindua 2020-08-02rarte, egun hori barne.*<br><br>*Hala ere, aurreko alkateak eskatuta, 2020-07-11n GOXARA S.L. enpresak eguneko zentroko erabiltzaileei zerbitzua ematen hasi zen, beren etxeetan. Egoera hori abuztuaren 2ra arte luzatzen da, egun hori barne.*<br><br>*2020ko abuztuaren 3an Loinatz eguneko zentroa berriro irekitzen da.*<br><br>*OINARRI JURIDIKOAK*<br><br>- *Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua: 34,2 art. eta azken xedapenetako hamargarrena.*<br>- *Ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretua: 2 art., alarma-egoera 2020-06-21era arte luzatuko da.*<br>- *2020-06-29ko Udal Osoko bilkuraren erabakia: kontratu aldaketari buruzkoa.*<br><br>*Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau egiten dio:*<br><br>*<u>Lehenik</u>. GOXARA S.L. enpresari 13.020,90€ ordaintzea kalte-ordain gisa, horietatik:*<br><br>*1.- Soldatak + gizarte segurantzako kuotak: 8.554,25€, ekaineko hilabetekoa.*<br><br>*2.- Soldatak + gizarte segurantzako kuotak: 2.568,34€ , uztailaren 1etik 10era bitartekoa.*<br><br>*3.- Ekaineko aparteko ordainsariaren zati proportzionala: 1.432,32€, martxoaren 14tik 31ra eta ekaineko hilabetekoa.*<br><br>*4.- Beste kontzeptu batzuk (epea: martxoaren 14tik 31ra eta ekainaren 1etik uztailaren 10era):*<br><br>*- GBP energia: 35,61€.*<br><br>*- EDP gasa: 13,56€.*<br><br>*- Alarmas y extintores Jaizkibel S.L.: 49,40€.* | *día de Gipuzkoa hasta el día 2-08-2020, inclusive.*<br><br>*No obstante, a solicitud del anterior Alcalde, el día 11-07-2020 GOXARA S.L comienza a prestar el servicio a las personas usuarias del centro de día, en sus propios domicilios. Situación que se prolonga hasta el día 2 de agosto inclusive.*<br><br>*El día 3 de agosto de 2020, se reabre el centro de día Loinatz.*<br><br>*FUNDAMENTOS JURÍDICOS*<br><br>- *Real Decreto Ley 8/2020, de 17 de marzo: art. 34,1 y disposición final décima.*<br>- *El Real Decreto 555/2020 de 5 de junio: art. 2, se amplía el estado de alarma hasta el 21-06-2020.*<br>- *Acuerdo de Ayuntamiento Pleno de modificación de contrato de fecha 29-06-2020.*<br><br>*La Comisión de Ciudadanía somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:*<br><br>*<u>Primero</u>. Abonar a GOXARA, S.L., en concepto de indemnización la cantidad de: 13.020,90 €, de los que:*<br><br>*1.- Salarios + Cuotas de Seguridad Social: 8.554,25€, del mes de junio .*<br><br>*2.- Salarios + Cuotas de Seguridad Social: 2.568,34€ , del 1 al 10 de julio.*<br><br>*3.- Parte proporcional de la paga extra de junio: 1.432,32€, del 14 al 31 de marzo y mes de junio.*<br><br>*4.- Otros conceptos (período del 14 al 31 de marzo y del 1 de junio al 10 de julio) :*<br><br>*- GBP energía: 35,61€.*<br><br>*- EDP gas: 13,56€*<br><br>*- Alarmas y extintores Jaizkibel S.L: 49,40€* |

| | |
|---|---|
| *- Aphelion soluciones informáticas S.L.:198,19€*<br><br>*- Saunier Duval: 17,94€.*<br><br>*- Serkonten: 53,35€.*<br><br>*- Elkargi SGR: 97,94€.*<br><br><br>*Bigarren*. *GOXARA S.L. enpresari aurkeztutako faktura ordaintzea, kopurua 20.373,48 €, Loinatz eguneko zentroaren erabiltzaileei beren etxeetan uztailaren 11tik abuztuaren 2ra bitartean emandako zerbitzuagatik.*” | *-Aphelion soluciones informáticas S.L.: 198,19€*<br><br>*- Saunier Duval: 17,94€*<br><br>*- Serkonten:: 53,35€*<br><br>*- Elkargi SGR: 97,94€*<br><br><br>*Segundo. Abonar a GOXARA S.L. la factura presentada por el servicio prestado a las personas usuarias del centro de día Loinatz, en sus propios domicilios desde el día 11 de julio al 2 de agosto, por importe de 20.373,48€.* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bilduakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.<br><br>Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena. | En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.<br><br>Sometida a votación se ha aprobado la propuesta por unanimidad. |
| b.- GLLk. LAGUNTZ HORIEK EMATEKO UDAL IRIZPIDEAK. 2021. URTEA. 2021BIBO0003<br><br>Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko ondorengo proposamena: | b.- AES. CRITERIOS MUNICIPALES PARA LA CONCESIÓN DE LAS MISMAS. AÑO 2021<br><br>Se ha dado a conocer la propuesta de la comisión de Ciudadanía. |
| *“AURREKARIAK*<br><br>*I.Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak honako baliabide hauek arautzen ditu: bazterkeria-arriskua prebenitzekoak, bazterkeria pertsonala nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeriako egoera arintzekoak eta gizarteratzea erraztekoak. Horien artean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) daude.*<br><br>*II. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako Departamentuak urtero GLLtako kontzeptu bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta Udal bakoitzarentzako aurrekontu-mugak ezartzen du.*<br><br>*III. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 88.d) artikuluaren arabera, Udalen eginkizuna da laguntza horiek onartu, ukatu eta ordaintzea.*<br><br>*IV. 2021. urte honetarako, Eusko Jaurlaritzak Beasaingo Udal herriarentzat ezarritako aurrekontu-muga 158.843€koa da; GLLko eskaeretako kontzeptu guztiak atenditzeko baliteke* | *“ANTECEDENTES*<br><br>*I. La ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, regula los instrumentos orientados a prevenir el riesgo de exclusión, a paliar situaciones de exclusión personal, social y laboral y a facilitar la inclusión. Entre ellos, las Ayudas de Emergencia Social (AES).*<br><br>*II. El Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, establece anualmente las cuantías máximas para cada concepto de las AES y los límites presupuestarios para cada Ayuntamiento.*<br><br>*III. Según el artículo 88.d) de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, corresponde a los Ayuntamientos el reconocimiento, denegación y pago de estas ayudas.*<br><br>*IV. Para este año 2021, el límite presupuestario que el Gobierno Vasco establece para el municipio de Beasain es de 158.843€; importe que podría resultar insuficiente para atender todos los* |

| | |
|---|---|
| *nahikoa ez izatea. Hori dela eta, laguntza hauek emateko beharrezkoa da udal irizpideak ezartzea.*<br><br>*OINARRI JURIDIKOAK*<br>- *-Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea.*<br>- *-Agindua, 2021eko martxoaren 10ekoa, 2020 urtean GLLtako gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta Udal bakoitzeko aurrekontu-mugak ezartzen duena.*<br><br>*PROPOSAMENA*<br>*Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*<br>*2021eko GLLk emateko proposatzen diren udal irizpideak onartzea; aldez aurretik 2021eko martxoaren 10eko Agindua indarrean jartzeko baldintzarekin. Agindu horren bidez, 2021. urterako GLLen gehieneko zenbatekoak eta udal bakoitzerako aurrekontu-muga ezartzen dira. Agindu hori EHAAn martxoaren 22an argitaratzea aurreikusten da."* | *conceptos de las solicitudes de las AES. Es por ello que se hace necesario establecer criterios municipales de concesión de estas ayudas.*<br><br>*BASES JURIDICAS*<br>- *La ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.*<br>- *-Orden de 10 de marzo de 2021, por la que se establecen para el año 2021, las cuantías máximas de las AES y el límite presupuestario para cada Ayuntamiento.*<br><br>*PROPUESTA*<br>*La Comisión de Ciudadanía somete a la consideración del Pleno municipal, la siguiente propuesta de acuerdo:*<br>*Aprobar los criterios municipales que se proponen para la concesión de las AES año 2021; con la condición de que previamente entre en vigor la Orden de 10 de marzo de 2021 por la que se establecen para el año 2021 las cuantías máximas de las AES y el límite presupuestario para cada Ayuntamiento, cuya publicación en el BOPV está prevista para el próximo 22 de marzo."* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bilduakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.<br><br>Bozketa eginda, aho batez ondorengo irizpideak onartu dira: | En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.<br><br>Tras realizar la votación se han aprobado los siguientes criterios por unanimidad. |
| "EUSKO JAURLARITZAK EMANDAKO GIZARTE LARRIALDITARAKO LAGUNTZAK (GLL) BANATZEKO UDAL IRIZPIDEAK 2021<br><br>EUSKO JAURLARITZAREN ESLEIPENA: 158.843€<br><br>0. BALDINTZA OROKORRAK<br>• GLL kontzeptu bakoitzeko gehienekoak Udal honek onartutakoak eta argitaratutakoak izango dira. Kontuan hartuko da familia bakoitzari dagokion laguntzaren ehunekoa, 2021ko martxoaren 10ko Aginduaren baremo ekonomikoaren arabera (2021eko martxoaren 22ko EHAAn argitaratua).<br>• Gizarte-larrialdietarako laguntzak diru-laguntzak direnez, horiek emateko aurrekontu-kreditua beharko da. | CRITERIOS MUNICIPALES PARA REPARTO DE LAS AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL (AES) OTORGADAS POR EL GOBIERNO VASCO . AÑO 2021<br><br>ASIGNACION DEL GOBIERNO VASCO: 158.843€<br><br>0. CONDICIONES GENERALES<br>• Los máximos por cada concepto de AES serán los aprobados y publicados por este Ayuntamiento. Se tendrá en cuenta el porcentaje de ayuda que corresponde a cada familia según el baremo económico de la Orden de 10 de marzo de 2021 publicada en el BOPV el 22 de marzo de 2021.<br>• Dado que las AES tienen naturaleza subvencional, su concesión quedará sujeta a la existencia de crédito presupuestario. |

| | |
|---|---|
| • Lehentasuna izango duten gastu espezifikoak honako hauek izango dira:<br><br>• Alokairu gastuak.<br>• Etxebizitza lortzeko kredituen interesen eta amortizazioaren gastuak (hipoteka).<br>• Energia gastuak.<br>• Ohiko etxebizitza izan eta mantentzeko gastuak.<br>• Oinarrizko premien gastuak: Kurtso eta formakuntzetarako garraio gastuak. | ● Los gastos específicos a priorizar serán los siguientes:<br><br>- Gastos de Alquiler.<br>- Gastos originados por intereses y amortización de créditos solicitados para obtener una vivienda (hipoteca).<br>- Gastos de Energía .<br>- Gastos de disfrute y mantenimiento de la vivienda habitual.<br>- Gastos de necesidades primarias: Gastos de transporte a cursos y formaciones. |
| • Ondoren aipatzen diren gastuei dagozkien eskaerak, hiruhileko aztertuak eta ebatsiak izango dira eta, kasua bada, ordainduak urteko gastuaren aurreikuspenaren arabera eta kreditua badago:<br><br>• Altzarien eta etxe-tresna elektrikoen gastuak.<br>• Ohiko etxebizitzaren egokitzapen, konponketa edo eta oinarrizko instalazioen gastuak .<br>• Oinarrizko premientzako gastuak.<br>• Aurretiaz egindako zorpetze gastuak.<br>•<br>• GLLetako betebeharrak edo /eta ekintzetarako konpromisoak betetzen ez badira, laguntza eten egingo da gutxienez hilabete batez eta GLLko laguntzari ez zaio alta emango, etenaren arrazoiak desagertzen ez diren bitartean. Ondorengo arau-hauste bakoitzeko, GLLk gutxienez 3 hilabeteko etenaldia izango du.<br><br>• Laguntza eten egingo da erabiltzailea/familia ez bada aurkezten jarraieko bi hitzorduetara justifikaziorik gabe.<br><br>• Bi ibilgailu edo gehiagoko jabeen kasutan, ez da GLLrik tramitatuko; eskatzen badira ukatu egingo dira. Laguntzen onuraduna izanik egoera hori ematen bada, laguntza eteteko arrazoia izango da .<br><br>• Onuradunak/familiak dokumentazio faltsua aurkezten badu, ukatu/etengo da diru-laguntza eta ezin izango da berriro eskatu 6 hilabete pasa arte.<br><br>• Onuradunek udalerritik kanpo ateratzeko gehienez hilabete bat edukiko dute urtean zehar. Epe hori baino gehiago ateratzen bada, diru- | ● Las solicitudes correspondientes a los gastos que a continuación se indican, serán valorados y resueltos trimestralmente y ,en su caso, abonados en función de la previsión de gasto anual y existencia de crédito:<br><br>• Gastos de mobiliario y electrodomésticos.<br>• Gastos de adaptación, reparación y/o instalaciones básicas de la vivienda habitual.<br>• Gastos de necesidades primarias.<br>• Gastos de endeudamiento previo.<br>● En el caso de que no se cumplan las obligaciones de las AES y/o algún compromiso de realización de actividades, la ayuda se interrumpirá como mínimo durante un mes y no se volverá a dar de alta en las AES mientras no desaparezcan las razones que motivaron la interrupción. Las AES se suspenderán por un período mínimo de 3 meses, por cada posterior incumplimiento.<br>● La ayuda se interrumpirá si la persona usuaria/familia no se presenta a dos citas consecutivas sin justificación.<br>● En el caso de personas propietarias de dos o más vehículos, las AES no se tramitarán; si se solicitan se denegarán. Si se produce dicha situación siendo persona perceptora de las ayudas, esto será motivo de interrupción de la ayuda.<br>● Si la persona/familia beneficiaria presenta documentación falsa, se denegará o suspenderá la ayuda y no podrá volver a solicitarse hasta haber trascurrido 6 meses.<br>● Las personas beneficiarias dispondrán como máximo de un mes al año para ausentarse del municipio. Si la ausencia es por un período superior, se suspenderá la ayuda. El día anterior a la ausencia tendrán que pasar por la subárea |

| | |
|---|---|
| laguntza etengo da. Joan aurretik, aurreko egunean Gizarte Ongizate azpi arlora etorri beharko dira dokumentu bat sinatzera, baita bueltatzerakoan ere. Horrela egin ezean, eten egingo da diru-laguntza absentziak irauten duen bitartean, eta ez-betetzearen zigorra aplikatuko da.<br><br>• Erabiltzaileak/familiak bere ohiko etxearen donazioa egiten baldin badu, etxearen balio katastrala kontutan hartuko zaio “diru-sarrera atipiko” modura.<br><br>• Onuradunek betebeharrak eta ekintzetarako konpromisoak bete beharko dituzte, GLLko eskaera egiten den momentutik.<br><br>● GLLetako onuradunek ezingo dituzte beren diru-sarrerak erabili bere familia unitatetik kanpoko pertsonei laguntzeko.<br><br>● Pertsona batek diru sarrerak bermatzeko errenta (DBE) jasotzen baldin badu 2 urtetan UECI berezi bat bezala, bere emaztea/senarra bere herrialdean egonda, eta denbora hori igaro eta gero emaztea/senarra bere herrialdetik ekartzen ez baldin badu eta DBE ukatzen baldin badiote arrazoi horrengatik, ezingo ditu GLLak eskatu. GLLAk jasotzen ari bada, bi urte betetzen dituenean, baja emango zaio<br>• Herrialdeko ondasunen agiriak 2 urteko balioa izango du, ematen den egunetik aurrera.<br>• Salbuespen gisa eta gehienez ere 2 urtetan onartu ahal izango dira GLLak, Etxebideko etxe batean bizi eta beste bat jabetzan duten pertsona/familiei. Kasu hauetan horrela jokatuko da:<br>  • Jabetzan duena alokatzen badu: lortutako errenta diru-sarrera modura kontutan hartuko da.<br>  • Jabetzakoa lagatzen badu, bere eskubide ekonomikoak baliarazten ez dituenez, laguntza ukatu egingo zaio.<br>  • Jabetzakoa donatzen badu, nahiz eta usufruktua mantendu, jabetzaren katastro-balioa diru-sarrera atipiko modura kontutan hartuko da.<br>  • Jabetzakoa salduko balu, diru-sarrera atipiko modura kontutan hartuko da, beti ere ohiko etxebizitza erosteko inbertitzen ez badu.<br>- KGPko alokairurako laguntza, diru-sarrera bezala kontabilizatuko da ( E.J.ren irizpiea). | de Bienestar Social a firmar un documento y a su regreso también. En el caso de no hacerlo así, la ayuda se suspenderá durante el tiempo que dure la ausencia y se aplicará la penalización del incumplimiento.<br><br>● En el caso de que la persona /familia realice una donación de su vivienda habitual, se le tendrá en cuenta el valor catastral de la vivienda como “ingreso atípico”.<br><br>● Las personas beneficiarias tendrán que cumplir las obligaciones y los compromisos para realización de actividades, desde el momento en que se realice la solicitud de AES.<br><br>● Las personas beneficiarias de AES no podrán utilizar sus ingresos para ayudar a personas ajenas a su unidad familiar.<br><br>● Si una persona percibe la renta de garantía de ingresos ( RGI) durante dos años como una UECI especial, estando su cónyuge en su país de origen, y si tras haber pasado ese período no trae a su cónyuge del mismo y le deniegan la RGI por dicho motivo, no podrá solicitar AES. En caso de que las esté percibiendo, al cabo de los dos años, se le dará de baja.<br>● El documento de bienes del país de origen tendrá una validez de dos años, a partir de la fecha de su expedición.<br>● Excepcionalmente y por un período máximo de 2 años se podrán conceder AES a personas o familias que viviendo en un piso de Etxebide, tienen otro en propiedad. En estos casos, se actuará de la siguiente manera:<br>  • Si alquila el que tiene en propiedad: la renta obtenida se tendrá en cuenta como ingreso.<br>  • Si cede el que tiene en propiedad, dado que ello no hace valer sus derechos económicos, se le denegará la ayuda.<br>  • Si dona el que tiene en propiedad, aunque se mantenga el usufructo, se tendrá en cuenta como ingreso atípico el valor catastral de la propiedad.<br>  • Si vende el que tiene en propiedad, se tendrá en cuenta como ingreso atípico, siempre y cuando no lo invierta en la compra de vivienda habitual.<br>● La ayuda complementaria de vivienda de la PNC, se tendrá en cuenta como ingreso (criterio G.V.) |

| | |
|---|---|
| - • Apopiloa bat izatekotan, apopilotzatik lortutakoa diru-sarrera bezala kontutan edukiko da.<br>• GLLak eskatzeko epea 2021-12-15arte izango da.<br><br>• GLLtako gastuen agiriak aurkezteko epea 2020-12-30arte izango da genienez ere.<br>• Baldintza orokor hauek familiako kide guztiek bete behar dituzte.<br><br>• GLLen eskatzaileak udal-ogasunarekin zorrak baditu, ezin izango da GLLetarako eskubidea aitortu, salbu eta udal-zorra legokiokeen GLLkin konpentsatzeko baimena ematen bada, konpentsatu beharreko hileko/urteko zenbatekoa adierazita (gutxienez 60 €/ hilean).<br><br>1. ALOKAIRU GASTUAK<br><br>• Hilero gehienez 250€ ordainduko dira etxebizitza osoa alokatzeagatik, eta 125€ alokairua logela batengatik (apopilotza edo azpierrentamendu) edo etxebizitzan maizter bat baino gehiago badago. Zenbateko horiek ezin dira izan, inola ere, alokairu-, baterako errentamendu- edo azpierrentamendu-gastuetarako zenbateko osoaren % 70 baino handiagoak.<br><br>• Alokairu babestuko etxebizitzak direnean, edo BO Etxebizitzak, edo Udal titulartasunekoak, ez dira GLLak onartuko alokairu kontzepturako.<br><br>• Alogera kontzeptuko pertsona onuradun batek etxebizitza alokatuta baldin badauka eta azpierrentamenduko kontratua egiten badio beste pertsona bati, alokairu preziotik deskontatuko zaio azpierrentamendutik jasotzen duen kantitatea.<br><br>2. ETXEBIZITZA EROSTEKO ESKATUTAKO KREDITUEN INTERES ETA AMORTIZAZIOEK ERAGINDAKO GASTUAK (HIPOTEKA)<br><br>• Kredituak ohiko etxebizitza ordaintzeko izan behar du. Salerosketa-eskriturak eta kredituari dagokion dokumentazioa eskatuko dira.<br><br>• Dekretuaren arabera, gizarte-larrialdi egoeran egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak sartzen dira | ● Si se tiene un pupilo, se tendrá en cuenta como ingreso el dinero procedente del pupilaje.<br>● El plazo de presentación de solicitudes de AES del 2021 será hasta el 15-12-2021.<br><br>● El plazo para presentar los justificantes de gasto será como máximo hasta el 30-12-2021.<br><br>● Estas condiciones generales han de ser cumplidas por todos las personas de la familia.<br><br>● En caso de que la persona solicitante de AES tenga deudas con la hacienda municipal, no se podrá reconocer el derecho a las AES, salvo que se autorice la compensación de la deuda municipal con las AES que le pudieran corresponder, con indicación del importe mensual/anual a compensar (mínimo 60€/mes) .<br><br>1.GASTOS DE ALQUILER<br>● La cantidad máxima que se abonará mensualmente será de 250€ por el alquiler de vivienda completa y de 125€ en los casos en el que el alquiler sea por una habitación (pupilaje o subarriendo) o un coarriendo de vivienda. Dichas cantidades no puede superar, en ningún caso el 70% del total de la cuantía para gasto de alquiler, coarriendo o subarriendo.<br><br>● Cuando se trate de viviendas de alquiler protegido, viviendas de protección oficial o de titularidad municipal, no se aprobarán AES en concepto de alquiler.<br><br>● Si una persona beneficiaria de ayuda en concepto de alquiler hace un contrato de subarriendo a otra, se le descontará del precio de alquiler la cantidad que reciba del subarriendo.<br><br>2. GASTOS ORIGINADOS POR INTERESES Y AMORTIZACION DE CREDITOS SOLICITADOS PARA OBTENER UNA VIVIENDA (HIPOTECA)<br><br>● El crédito tiene que destinarse al pago de la vivienda habitual. Se pedirán las escrituras de compraventa, así como documentación relativa al crédito.<br>● Según el decreto, se tienen en cuenta únicamente los gastos generados por intereses y amortización de créditos para compra de vivienda solicitados con anterioridad a estar en situación de emergencia social; hasta 250€ |

| | |
|---|---|
| soilik; 250 € gehienez hilero, ezingo delarik kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren zenbatekoaren %70 gainditu.<br><br>• BO etxebizitzak baldin badira, GLLak ez dira onartuko kontzeptu honetarako.<br><br><u>3. ENERGIA GASTUAK</u><br><br>• Energia gastu gisa kontutan hartuko dira: elektrizitatea, gasolioa, egurra, ikatza eta gasa (ur beroa barne).<br><br>• Kontzeptu honengatik gehienez 75€ ordainduko dira hilean.<br><br><u>4. ALTZARI ETA ETXE TRESNA ELEKTRIKOEN GASTUAK</u><br><br>• Laguntza hauek tramitatzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira erosi aurretik.<br><br>• Alokairuan dauden onuradunek altzari eta etxe tresna elektrikoak erosteko laguntza eska dezakete, beti ere, alogerako kontratuaren arabera erosketa etxearen jabeari ez badagokio.<br><br>• Altzarien kontzeptuan gehienez 500 euro onartuko dira.<br><br>• Etxe tresna elektrikoen kontzeptuan gehienez 500 euro onartuko dira, etxe tresna elektriko mota bakoitzeko gehieneko kopuruak jarraian adierazten dira:<br><br>- Garbigailua 300 € .<br>- Hozkailua 400 € .<br>- Erauzgailua 100 €.<br>- Labea 250 €.<br>- Plaka 150 €.<br>- Mikrouhin labea: 50 € (Salbuespen bezala).<br><br><u>5. EGOKITZAPEN, KONPONKETEN ETA OINARRIZKO INSTALAZIOEN GASTUAK</u><br><br>• Kontzeptu honengatik Etxebideri eskatutako subentzioaren aldeko ebazpena dagoenean, subentzioaren kopurua gastutik deskontatuko da.<br><br>• Etxe tresna elektrikoen konponketa: 4. Puntuan adierazitako etxe tresna elektrikoen konponketaren gastua soilik sartuko da.<br>• Egokitzapen, konponketen eta oinarrizko instalazioen gastuetarako gehieneko laguntza: 1.000€ | mensuales, sin poder superar el 70% del montante de los intereses mensuales y la amortización mensual del crédito.<br><br>● Si se trata de viviendas de protección oficial, no se aprobarán AES para este concepto.<br><br><u>3. GASTOS DE ENERGIA</u><br>● Se tendrán en cuenta como gastos de energía: electricidad, gasoil, madera, carbón y gas (incluida agua caliente).<br>• Por este concepto se abonará la cantidad máxima de 75€ al mes.<br><br><u>4. GASTOS DE MOBILIARIO Y DE ELECTRODOMESTICOS</u><br>● Para tramitar estas ayudas habrá que presentar, previo a su compra, dos presupuestos diferentes.<br>• Las personas inquilinas podrán solicitar ayuda para adquisición de mobiliario y electrodomésticos siempre y cuando su compra no corresponda a la persona propietaria de la vivienda, según el contrato de alquiler.<br><br>• En concepto de mobiliario se concederá como máximo el importe de 500€.<br><br>• En concepto de electrodomésticos se concederá como máximo 500 euros; a continuación, se indican los importes máximos por tipo de electrodoméstico:<br><br>• Lavadora: 300 €.<br>• Frigorífico: 400 €.<br>• Extractor : 100 €.<br>• Horno: 250 €.<br>• Placa: 150 €<br>• Microondas: 50 €. (Como excepción).<br><br><u>5. GASTOS DE ADAPTACION, REPARACION Y/O INSTALACIONES BÁSICAS</u><br>● Cuando exista resolución favorable de la subvención solicitada a Etxebide por este concepto, se descontará del importe del gasto la subvención obtenida.<br>• Reparación de electrodomésticos: se incluirá únicamente el gasto de reparación de los electrodomésticos indicados en el punto 4.<br>• Importe máximo de ayuda para gastos de adaptación, reparaciones e instalaciones básicas: 1000€ |

<table>
<tr>
<td>

<u>6.-ETXEBIZITZAREN ERABILERAKO ETA MANTENTZEKO GASTUAK</u>

• Mantenu gastu gisa kontutan hartuko dira: komunitateko gastuak, etxeko asegurua eta OHZ.

• Komunitate-gastuagatik hilean gehienez 75€ ordainduko dira .<br>
• Etxeko aseguruaren gastuagatik, gehienez 100€ ordainduko dira.<br>
• OHZ gastuagatik, gehienez 200€ ordainduko dira.<br>
• Etxebizitzaren erabilerako eta mantentzeko gastuentzako , laguntzaren gehieneko kopurua 900€.

<u>7. OINARRIZKO PREMIEN GASTUAK</u><br>
• Ondorengo gastuei emango zaie lehentasuna:

- Kurtso eta formakuntzetarako garraio gastuak: MUGI txartelaren eta garraio publikoaren gastuak. Gehieneko kopurua 60€ hilean<br>Formakuntza ikastaroen inguruko informazioa aurkeztea beharrezkoa izango da: ordutegia, datak, eduki orokorrak, bertaratze justifikazioa…<br>Justifikazio gisa MUGI txartelaren mugimenduak edo erabilitako garraioaren txartela aurkeztuko dira.
- Betaurrekoak erosteko gastuak: gehienez 250€ pertsonako.
- Dentistaren gastuak: gehienez 300€ pertsonako.<br>Ez dira hortzak ateratzeak eragindako gastuak sartzen, ezta panoramikak eta PADI programatik sartzen diren gastuak ere.

• Betaurrekoak erosteko eta dentistaren gastuetarako laguntzak tramitatzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira .

Oinarrizko premien gastuetarako laguntzaren gehieneko kopurua: 1000€

<u>8. AURRETIAZ EGINDAKO ZORPETZE-GASTUAK</u>

• Zorpetze gastuak kontuan hartuko dira beti ere , GLL eskaera egin aurretik sortu badira edo COVID-19ak eragindako alarma egoeragatik sortu badira; gehienez 3.000 eurokoa izango da UC ( elkarbizitza unitatea) 1 baldin bada eta 1500 eurokoa 2 UC baldin badira.

</td>
<td>

<u>6. GASTOS PARA EL DISFRUTE Y MANTENIMIENTO DE LA VIVIENDA</u><br>
● Se tendrán en cuenta como gastos de mantenimiento: Gastos de comunidad, seguro del hogar y el IBI.

- Por gasto de comunidad se abonará la cantidad máxima de 75€ al mes .
- Por el gasto de seguro de hogar se abonará la cantidad máxima de 100€.
- Por el gasto de IBI se abonará la cantidad máxima de 200€.
- Importe máximo de ayuda para el gasto de disfrute y mantenimiento de vivienda: 900€.

<u>7. GASTOS DE NECESIDADES BASICAS</u><br>
● Se atenderán preferentemente los siguientes gastos:

- Gastos el transporte a cursos y formaciones: gastos de la tarjeta MUGI y de transporte público. Importe máximo 60€ mensuales.

Será necesaria la presentación de horarios, fechas, contenidos generales y justificación de asistencia de los cursos de formación.<br>
Se presentarán a modo de justificante los movimientos de la tarjeta MUGI y/o billete del transporte utilizado.

- Gastos por compra de gafas: máximo 250€ por persona.
- Gastos de dentista: máximo 300€ por persona.

No se incluyen gastos para extracción de dientes, ni panorámicas, ni gastos incluidos en el programa PADI.

● Para tramitar ayudas en concepto de gastos de dentista y compra de gafas, habrá que presentar previo a su compra dos presupuestos diferentes.<br>
Importe máximo de ayuda para gastos de necesidades básicas: 1000€

<u>8. GASTOS DE ENDEUDAMIENTO PREVIO</u>

● Se atenderán los gastos de endeudamiento siempre que se hayan generado con anterioridad a la realización de la solicitud de AES, o se hayan generado a causa de la situación de alarma provocada por el COVID-19; como máximo se concederán de 3.000 € si es 1

</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| 9. JUSTIFIKAZIOAK<br><br>• Diruz lagundutako gastuen fakturak, Gizarte Zerbitzuek eskatu ondoren, aurkeztu beharko dira. | la UC (unidad de convivencia) o 1.500€ si se trata de 2 UC.<br><br>9. JUSTIFICACIONES<br>● Las facturas de los gastos subvencionados tendrán que presentarse tras ser solicitados por parte de los Servicios Sociales. |
| c.- BERTAKO PRODUKTUEN MERKATURATZEA ETA KONTSUMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2021. URTEA. 2021MEPO0014<br><br>Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko ondorengo proposamena: | C.- BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA FOMENTAR LA COMERCIALIZACIÓN Y CONSUMO DE PRODUCTOS LOCALES. AÑO 2021<br><br>Se ha dado a conocer la propuesta de la comisión de Ciudadanía: |
| *"AURREKARIAK:*<br><br>*1. Udal Gobernuak tokiko produktuen merkatua martxan jarri zuen 2017ko otsailean, hileko lehen larunbatean, merkatuaren jarraipena ziurtatzeko eta denboraldiko produktuak erosteko aukera emateko, astearteetako merkatura joateko zailtasunak dituzten herritarrei. Horrela, ekoizleei eta kontsumitzaileei bertako produktuak zirkuitu laburren bidez merkaturatzea eta kontsumitzea bermatu nahi zaie.*<br><br>*2. Idazkaritzaren txostenak adierazten du aurreikusitako moduan sustatu nahi den jarduera ez dela dirulaguntza kontzeptuaren araberakoa, baizik eta kontratazioari lotutako zerbitzu-prestazio batena. Kontu-hartzailetzaren aldetik, fiskalizazio-txostena ere ematen da erreparoarekin.*<br><br>*3. Hala ere, erantsi diren eta onartzeko proposatu diren oinarriak prestatu dira, eta horretarako, 0243.471.431.20.01 kontu-saila jarri da "feria dinamizatzeko dirulaguntza", honako arrazoi hauengatik:*<br><br>-Kontratazioa bideraezina da ekoizle-eskasiagatik eta fakturatzeko zailtasunagatik. | *"ANTECEDENTES:*<br><br>*1. El Gobierno Municipal puso en marcha en febrero de 2017 el mercado de productos locales el primer sábado de cada mes con el objetivo de asegurar la continuación del mercado y dar opción a comprar productos de temporada a vecinos con dificultades para asistir al mercado de los martes. De este modo, se pretende garantizar a los productores y consumidores el comercializar y consumir productos locales a través de circuitos cortos.*<br><br>*2. El informe de Secretaría indica que la actividad que se pretende fomentar del modo previsto no obedece al concepto de subvención sino al de una prestación de servicios sujeta a contratación. También se emite informe de fiscalización, con reparo, por parte de Intervención.*<br><br>*3. Sin embargo, se han elaborado las bases que se adjuntan y que se proponen para su aprobación, y a tal efecto se ha consignado una partida 0243.471.431.20.01 "subvención para dinamización de la feria", por las siguientes razones:*<br><br>- *La contratación resulta inviable debido a la escasez de productores y a su dificultad para facturar.* |

| | |
|---|---|
| *OINARRI JURIDIKOAK:*<br><br>*-2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.*<br><br>*-38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.*<br><br>*PROPOSAMENA:*<br><br>*Ondorioz, Herritarren Batzordeak Udalbatza Osoari honako akordio proposamena egiten dio:*<br><br>Lehena. *Oinarriak onartzearen aldeko erreparoa ebaztea eta aurreikusitako laguntzak emateko deialdia egitea, tokiko produktuekin merkatua izateari lehentasuna ematean, herritarrentzat interes orokorrekoak direlako. Horrela, eskualdean tradizio kulturaleko ohiturak zaindu, desagertzea saihestu eta bertako ekoizpena bultzatu nahi da.”* | *FUNDAMENTOS JURÍDICOS:*<br><br>*- Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi. Artículo 17,34.*<br><br>*- Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones.*<br><br>*PROPUESTA:*<br><br>*En consecuencia, la comisión de Ciudadanía somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*<br><br>*Primero. Resolver el reparo a favor de aprobar las bases y efectuar la convocatoria para otorgar las ayudas previstas, al dar prioridad a la celebración del mercado con productos locales por ser de interés general para la ciudadanía. Con ello se desea preservar hábitos de tradición cultural en la comarca, evitar su desaparición y favorecer la producción autóctona.”* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bilduakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.<br><br>Bozketa eginda, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:<br><br>**“Bertako produktuak merkaturatzeko eta kontsumoa sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak. 2021.urtea**<br><br>Beasaingo Udalaren eskumenen artean “barne merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda merkatu, hornidura-merkatu, azoka lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea,…” dago. Udalaren helburua da hilero lehenengo larunbatean izaten den azoka sustatzea eta horrela bertako ekoizleei nahiz kontsumitzaileei, bertako produktuak zirkuitu laburren bitartez merkaturatzeko eta kontsumitzeko aukera ematea.<br><br>1.XEDEA | En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.<br><br>Tras realizar la votación se han aprobado las siguientes bases por unanimidad:<br><br>**Bases para la concesión de subvenciones para fomentar la comercialización y consumo de productos locales. Año 2021.**<br><br>Entre las competencias del Ayuntamiento de Beasain se encuentra la de la “*ordenación y gestión del comercio interior*. *En concreto*, *lo relativo a la ordenación y gestión sobre mercados, abastos, ferias y lonjas, mataderos y comercio ambulante*, …”. Es interés del Ayuntamiento potenciar el mercado municipal que se celebra el primer sábado de cada mes y de esa manera ofrecer a los productores y consumidores la posibilidad de comercializar y consumir productos locales a través de circuitos cortos.<br><br>1.OBJETO |

| | |
|---|---|
| Hilabete hasierako larunbateko udal merkatua tokiko produktuekin sustatzeko laguntzak arautzea. | Regular ayudas para fomentar el mercado municipal de los sábados de primeros de mes con productos locales. |
| 2. FINANTZIAZIOA | 2. FINANCIACIÓN |
| Deialdi honetako helburu duen diru-laguntza finantzatzeko Udalak 7.000€ euroko kreditua aurreikusia du, 0243.471.431.20.01 partidan. | Para la financiación de las ayudas objeto de la presente convocatoria, el Ayuntamiento tiene previsto un crédito de 7.000 euros en la partida 0243.471.431.20.01 |
| 3. ESKATZAILEAK | 3. SOLICITANTES |
| Hilero lehen larunbatean izaten den azokara bertako produktuak saltzera etortzen diren ekoizleak. | Los productores que acudan a vender sus productos al mercado que se realiza el primer sábado de cada mes. |
| 4. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK | 4. REQUISITOS PARA ACCEDER A LAS SUBVENCIONES |
| Ustiategi bakoitzeko onuradun bakarra izan ahalko da. Diru-laguntzaren onuraduntzat joko da honako baldintza bereziak betetzen dituena: | Únicamente habrá un beneficiario por explotación. Se considerará beneficiario de la subvención a quien cumpla las siguientes condiciones: |
| -Hilean behin lehen larunbatean izaten den azokara baserri-produktuak saltzera etortzen dena eta honako baldintzak betetzen dituena: | -Venta de productos de caserío en el mercado municipal que se celebra el primer sábado de cada mes, siempre que: |
| a) Fruta eta barazki salmentetan, garaian garaiko produktuak eskainiko dira. Gutxienez: 3 produktu. | a) En la venta de fruta y verdura se ofrecerán productos de temporada. Mínimo: 3 productos. |
| b) Bestelako produktuetan ez da kopuru minimorik ezarriko, hau da: gazta, eztia, ogia… | b) En otros productos, tales como, pan, queso, miel etc., no se establecen mínimos. |
| c) Seihilabetekoan, gutxienez 4 larunbatetan saldu behar dute. Horren jarraipena Udaleko teknikari batek egingo du. | c) La asistencia al mercado, será como mínimo, de 4 sábados al semestre. El seguimiento de ello lo realizará un técnico del Ayuntamiento. |
| d) Ekoizleek produktuen izena eta prezioa jartzen duten arbeltxoak jarri behar dituzte euren postuetan. | d) Los productores, en los puestos colocarán pizarras con el nombre del producto y el precio. |
| 5.DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA. | 5.CUANTÍA DE LAS SUBVENCIONES. |
| Ekoizle bakoitzak azokan parte hartutako larunbat bakoitzaren truke 50€ jasoko ditu. | Cada productor recibirá 50 € por cada sábado que haya tomado parte en el mercado. |
| 6. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA | 6. PROCEDIMIENTO PARA OTORGAR LA SUBVENCIÓN |
| Merkataritza saileko zerbitzuek, eskaerari Udalaren ordezkariak eta ekoizleak sinatutako txostena erantsiko diote, hala badagokio. Hori azokan saldu izanaren froga- | Los servicios técnicos del área de comercio adjuntarán a la solicitud, si procede, el informe elaborado y firmado por el representante del Ayuntamiento y el productor, que constituirá la |

| | |
|---|---|
| agiria izango da. Horrez gain, Udalak beharrezkoa deritzon infomazioa eskatu ahal izango du.<br><br>Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.<br><br>Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.<br><br>7.ESKAERAK AURKEZTEA<br><br>Agiri hauek erantsi beharko zaizkio dirulaguntzak eskuratzeko eskabideari:<br><br>-NAren fotokopia.<br>-Banku edo aurrezki-erakunde batek igorritako agiria, eskatzailearen izenean kontu korronte bat dagoela ziurtatzen duena.<br><br>8.DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA<br><br>Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.<br><br>9. ESKAERAK AURKEZTEA<br><br>Oinarri hauek Osoko Bilkuran onartu ondoren, BDNSra bidaliko dira argitaratzeko eta ondoren GAOn argitaratuko dira.<br><br>Epea:<br><br>Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2021-11-30era bitartean.<br><br>Modua:<br><br>Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala edo Udalaren erregistroan, I.eranskineko ereduaren arabera. | prueba de la venta efectuada. Además de ello, el Ayuntamiento podrá solicitar la información complementaria que estime pertinente.<br><br>La concesión o denegación de las ayudas se realizará mediante resolución del Alcalde que se notificará al solicitante de la subvención.<br><br>El abono se efectuará en el plazo de un mes desde que el Alcalde efectúe la Resolución de otorgamiento de la subvención.<br><br>7.DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR<br><br>A la solicitud de subvención se adjuntará la siguiente documentación:<br><br>-Fotocopia DNI<br><br>-Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a nombre del solicitante.<br><br>*8. COMPATIBILIDAD DE SOLICITUDES*<br><br>Las ayudas establecidas en estas bases de la subvención serán compatibles con cualesquiera otras ayudas otorgadas por otras entidades y organismos. En ese caso, deberá dar cuenta de ello al Ayuntamiento.<br><br>9. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.<br><br>Las presentes bases serán remitidas al BDNS una vez aprobadas por el Pleno y posteriormente se publicará nen el BOG.<br><br>Plazo:<br><br>Las solicitudes de ayuda podrán presentarse a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOG y hasta el 30-11-2021.<br><br>Modo:<br><br>Los que pidan la subvención tendrán que presentar junto con la hoja de la solicitud debidamente cumplimentada, todos los documentos que se indican a continuación, preferentemente, a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Beasain: http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala o en el Registro del Ayuntamiento, siguiendo el modelo del Anexo I. |

| | |
|---|---|
| 10. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA<br><br>Kasu honetan, ez da bidezkoa diru-laguntza lortzeko baldintzak egiaztatu behar izatea.” | 10.INCUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES DE LA SUBVENCIÓN<br>.<br>En el presente caso no procede por tener que estar acreditados los requisitos para obtener la subvención.” |
| d.- <u>TASAK. UDALEKU ITXIETAN PARTE HARTZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASEI, HASIERAKO ONESPENA EMATEKO PROPOSAMENA</u>. 2021ESEP0003<br><br>Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko ondorengo proposamena: | d.- <u>TASAS. PROPUESTA DE APROBACIÓN INICIAL PARA PARTICIPAR EN LAS COLONIAS DE VERANO.</u><br><br>*Se ha informado la propuesta de la comisión de Ciudadanía:* |
| “*AURREKARIAK*<br><br>*Beasaingo haur eta gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilera hobetzeko hizkuntza errefortzu zerbitzua jarri zuen martxan Udalak 2017an. Zerbitzuko erabiltzaileen beharrak aztertuta, opor garairako ere euskara erabiltzeko gune bat izatea helburua lortzeko aproposa litzatekeela ikusi zen.*<br><br>*Hori dela eta, Beasaingo Udalak erantzun egin nahi dio errealitate horri eta udaleku itxiak antolatuko ditu 9 eta 13 urte bitarteko haurrentzat. Gehienez ere 50 plaza izango dira.*<br><br>*APLIKATU BEHARREKO LEGERI**A***<br><br>- *2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa*<br>*7. artikulua.– Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez.*<br><br>*2.– Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamiza-tzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste* | *“ANTECEDENTES*<br><br>*El Ayuntamiento puso en marcha en 2017 un servicio de refuerzo lingüístico para mejorar el conocimiento y uso del euskera entre los niños y jóvenes de Beasain. Analizadas las necesidades de las personas usuarias del servicio, se observó que sería adecuado contar con un espacio para el uso del euskera para la época vacacional.*<br><br>*Por ello, el Ayuntamiento de Beasain quiere dar respuesta a esta realidad y organizará colonias cerradas para niños y niñas entre 9 y 13 años. El número máximo de plazas será de 50.*<br><br>*LEGISLACION APLICABLE*<br><br>- *Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi*<br>*Artículo 7.– Competencias de las entidades locales y de los municipios respecto al uso del euskera.*<br><br>*2.– Asimismo, se atribuye a los municipios, como propia, la competencia, con las facultades y funciones que de ella se derivan, para fomentar el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial, ya sea mediante la prestación de actividades y servicios a estos fines o mediante la colaboración en la financiación de* |

| | |
|---|---|
| *pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.*<br><br>*Horren ondorioz, Herritarrak Batzordeak Osoko bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*<br><br>*Beasaingo Udalak antolatuko dituen udaleku itxietarako ondorengo tasak onartzea:*<br><br>*Seme-alaba 1: 150,00€*<br><br>*2 seme-alaba 255,00€*<br><br>*Familia ugariek:*<br><br>*Seme-alaba 1: 120,00€*<br><br>*Bi seme-alaba: 225,00€*<br><br>*Hiru seme-alaba: 300,00€"* | *actividades de fomento y dinamización del euskera realizadas por otras personas o entidades.*<br><br>*En consecuencia, la Comisión de Ciudadanía somete a la consideración del pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*<br><br>*Aprobar las siguientes tasas para las colonias de verano que organizará el Ayuntamiento de Beasain:*<br><br>*1 hijo 150,00 €*<br><br>*2 hijos 255,00 €*<br><br>*Familias numerosas:*<br><br>*1 hijo 120,00 €*<br><br>*Dos hijos 225,00 €*<br><br>*Tres hijos 300,00 €"* |
| Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.<br><br>Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena | En el turno de intervenciones los asistentes se ha mostrado de acuerdo con la propuesta.<br><br>Tras realizar la votación se ha aprobado la propuesta por unanimidad. |
| **4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK**.<br><br>a.- HAPO. IRDOKIZUNAK EBAZTEA ETA IRIZPIDE ET AHELBURUAK ONARTZEA. 2019HAPO0001<br><br>Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko ondorengo proposamena: | **4.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO.**<br><br>a.- PGOU. RESOLUCIÓN DE SUGERENCIAS PRESENTADAS Y APROBACIÓN DE CRITERIOS Y OBJETIVOS.<br><br>Se ha informado la siguiente propuesta de la comisión de Territorio: |
| "*AURREKARIAK*<br><br>*1.- Plangintzako Aholku Batzordearen txostena, 2021eko martxoaren 15ekoa, aipatutako xedearekin egindako bost bilkuretan eztabaidatutakoaren emaitza.* | *ANTECEDENTES*<br><br>*1.- Informe del Consejo Asesor de Planeamiento fechado el 15-03-2021, resultado de lo debatido en las cinco sesiones celebradas al objeto indicado.* |

| OINARRI JURIDIKOAK | FUNDAMENTOS JURÍDICOS |
|---|---|
| *- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 109. artikulua (eginkizunak).*<br><br>*- Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen 7/1985 Legearen, 22,2c) eta 72,2ll) artikuluak*<br><br>*Ondorioz, Lurralde Batzordeak Udalbatzari honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dio, azter dezan. Horretarako, <u>Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoa behar da</u>:*<br><br>***<u>Lehenengoa</u>**. Aholku Batzordearen 2021-03-15eko data duen txostenean xedatutakoarekin bat etorriz aurkeztutako iradokizunak ebaztea.*<br><br>***<u>Bigarrena</u>**. Aurrekarietan jasotako irizpideak eta helburuak onartzea, Igartetxe 3, Zazpiturrieta 4, Arantzazu 5, Antzizar II 30 areekiko, zoru urbaezinarekiko eta auzoetako etxebizitzen segregazioari dagokion aldaketekin, hain zuzen ere, Aholku Batzordearen 2021eko martxoaren 15eko txostenarekin batera doan II. eranskinean jasota daudenak, hasierako onarpenerako dokumentua idazteko kontuan har daitezen.*<br><br>***<u>Hirugarrena</u>**. Erabaki hau Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idatzi duen taldeari helaraztea, eta hasierako onespen-agiria egin dezala adieraztea eta paraleloki ingurumen-azterketa estrategikoa, irismen-dokumentua kontuan hartuta*." | *- Art. 109 Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco (funciones).*<br><br>*- Art. 22,2c) y art. 47,2ll)de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local.*<br><br>*En consecuencia, la comisión de Territorio somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo, para lo que se precisa la <u>mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación:</u>*<br><br>***<u>Primero</u>**. Resolver las sugerencias presentadas de conformidad con lo dispuesto en el informe del Consejo Asesor fechado el 15-03-2021.*<br><br>***<u>Segundo</u>**. Aprobar los criterios y objetivos recogidos en el Avance con las modificaciones que constan respecto de las áreas, 3 Igartetxe, 4 Zazpiturrieta, 5 Arantzazu, 30 Antzizar II, suelo no urbanizable y lo relativo a segregación de viviendas de los barrios, que constan en el Anexo II que acompaña al informe del Consejo Asesor fechado el 15-03-2021, al objeto de que sean tenidos en cuenta para la redacción del documento de aprobación inicial.*<br><br>***<u>Tercero</u>**. Dar traslado del presente acuerdo al equipo redactor del Plan General de Ordenación Urbana, con la indicación de que elabore el documento de aprobación inicial y paralelamente la redacción del estudio ambiental estratégico teniendo en cuenta el documento de alcance."* |
| Jarraian Alkateak esan du irizpide eta helburu txostenean, kontsolidatzen diren ekipamenduen artean CAFeko kapera aurreikusten dela, baina hori errua dela Beasaingo Udala-CAF eta URArekin sinatutako hitzarmenean esaten denaren arabera kapera hori eraitsi egingo delako. Beraz, egindako proposamenari aldaketari hori txertatzen zaio. | A continuación la Sra. Alcaldesa señala que en el informe de criterios y objetivos entre los equipamientos que se consolidan se contempla la capilla del CAF, lo cual es un error, ya que según el convenio firmado entre el Ayuntamiento de Beasain-CAF y URA dicha capilla se derribará. Por lo tanto, se incorpora a la propuesta realizada. |

<table>
<tr><td>Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:</td><td>En el turno de intervenciones los asistentes han expresado las siguientes opiniones:</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Entiendo que esta propuesta no es sólo para aprobar las modificaciones en los criterios que se recogían anteriormente, que se han tratado en el Consejo Asesor y se aprobaron por mayoría absoluta, pero con algunos de ellos no estamos de acuerdo. En el área de CAF, ya cuando se presentó el convenio entre Ayto-URA-CAF, nosotros nos abstuvimos porque a nuestro entender había falta de información técnica sobre si con la bora se va a terminar la problemática de inundabilidad del barrio de la Porteria. Seguimos pensando que el problema se puede situar en el recodo con Ordizia. El proyecto sigue adelante porque el convenio se ha firmado, pero no tenemos más información al respecto. También nos manifestamos en contra de modificar la calificación del suelo en la zona de Lazkaibar para pasar a ser de actividades económicas porque afecta a los vecinos del barrio al desaparecer éste. En la zona de Urbieta, se presenta la construcción de una pasarela sobre el rio Oria para conectar la plaza Gipuzkoa con el casco histórico. No estamos a favor e incluso los vecinos se muestran en contra porque con ello no se mejora la seguridad de la calle Arana. Teniendo los otros dos puentes de acceso creemos que en un despropósito. En la zona de Antzizar se presenta la creación de un equipamiento deportivo y no vemos esa necesidad. Esto va ligado con la modificación que se presenta en Antzizar II. También nos abstuvimos en la zona del ensanche de Trenbide porque lo que se propone depende de un acuerdo con ADIF, que se lleva años intentando firmar, pero que por ahora no está culminado. Con todo esto, nos posicionamos en contra de la propuesta.”</td></tr>
<tr><td>Alkate andreak (EAJ-PNV): “Saiatuko naiz erantzuten. Esan duzu ez zenutela onartu URA eta CAFekin proposatutako hitzarmena uholdetasuna konponduko den zalantzak dituzuelako. Hitzarmen horren baitan UR AGENTZIAri dagokio estudio hidraulikoa egitea. Beraiek badauzkate datuak esateko horrelako exekuzio bat egin ondoren publikoki onura handia egingo diola ez bakarrik CAFeko eremuari baizik eta Beasain osoari. Uholdegarritasun egoera horretan Beasainek izango duen onura kontutan hartuta, guk horren alde egin izan dugu. Horrek ahalbidetuko du zuk esan duzun bi zubien artean ere beste oinezkoentzako zubi bat egitea, Gaur egun dugun uholdegarritasunarekin zubi horrek izugarrizko altura hartu beharko luke baino CAFeko uholdegarritasuna hobetzeak ekarriko luke pasarela hori egin ahal izatea. Ikusten dugun Arana kaleko alde hori biziberritzeko ezinbesteko ekimen bat izan daitekeela hor pasarela hori eraikitzea. Antzizar eta Antzizar II guk zuzkidura bezala ikusten ditugu, hor kirol ekipamendua dugulako eta esparzimendu eremu bezala ikusten dugu. Trenbideko eremu horretan egia da ADIFekin akordioetara iritsi behar dela. Horretan harremanetan hasiak gaude, tokatzen den bezala, zeren eta guk nahi badugu Beasaingo garapena hor inguruan izatea eta mendiari ez jatea, tokatzen da harremanetan jarri eta lanean hastea etorkizuneko Beasain marrazte aldera.”</td><td>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Intentaré responder. Dices que no aceptastéis el convenio propuesto con URA y CAF porque tienéis dudas de que se solucione la inundabilidad. En el marco de dicho convenio la elaboración del estudio hidráulico corresponde a la Agencia Vasca del Agua. Ellos tienen datos para decir que una ejecución de este tipo, supondrá un beneficio público, no sólo en el ámbito de CAF sino de todo Beasain. Teniendo en cuenta el beneficio para Beasain en cuanto a la situación de inundabilidad, hemos apostado por ello. Esto posibilitará la construcción de un nuevo puente peatonal entre los dos puentes que tu has mencionado. Con la inundabilidad que tenemos hoy en día, dicho puente deberia de tener mucha altura, pero al mejorar la inundabilidad de CAF sería posible la construcción de esta pasarela. La construcción de esta pasarela puede ser una iniciativa imprescindible para la revitalización de la zona de la calle Arana. Antzizar y Antzizar II son vistas por nosotros como dotación porque tenemos equipamiento deportivo y lo vemos como un campo de esparcimiento. En este ámbito ferroviario es cierto que hay que llegar a acuerdos con ADIF. Estamos en contacto para ello, tal y como toca, porque si nosotros queremos que el desarrollo de Beasain se de en ese ámbito y no comiendo terrenos al monte, toca ponerse en contacto y trabajar para dibujar el futuro Beasain. "</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk honen inguruan Aholkularitza Batzordean azaldu ditugu gure zalantzak. Orokorrean esan genuen markatutako ardatzekin ados geundela baina ez dakiguna da irizpide orokor horiek mapan marraztu ditugun. Bereziki planteatu genuen 13 arean eta Antzizar eremuan aurreikusten diren ekipamenduak beharra zegoen eta Beasain nola garatu horrekiko zalantza. Gogoratuko duzue baita ere, etxebizitza politika sozialaren falta somatu dugula. Areatan aurreikusten diren helburuekin ados egon bagaitezke ere, orokorrean zalantzak ditugu Egitasmo Orokor honekin. Beraz, abstenitu egingo gara.” | Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Nosotros hemos planteado nuestras dudas en el Consejo Asesor. En general dijimos que estábamos de acuerdo con los ejes marcados pero lo que no sabemos es si hemos dibujado esos criterios generales en el mapa. Planteamos especialmente dudas en cuanto a la necesidad de los equipamientos previstos en el área 13 y en el área de Antzizar y en la manera de desarrollar Beasain. También recordaréis que hemos detectado la falta de una política social de vivienda. Aunque podemos estar de acuerdo con los objetivos previstos en las áreas, en general tenemos dudas con este Plan General. Por lo tanto, nos abstendremos. " |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Etxebizitzen kontuari eutsiz esango nuke egungo Arau Subsidiarioetan markatzen dela garatzeko geratzen diren %41a babes ofizialeko etxebizitzak izan beharko liratekeela eta Egitasmo honetan ere, azken finean, eremu batzuetan %44ko etxebizitzak babestuak izango lirateke eta esan dugun trenbide eremu horretan %55era ere igotzen gara. Ugartemendin %100a eta bataz bestekoa %40a da babes ofizialeko etxebizitzei dagokionez. Aurrerago tokatuko da zehaztea zein motatako etxe babestuak izan daitezen. Horretarako denbora dago.”<br><br>Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da: | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Continuando con la cuestión de las viviendas, diría que según las actuales NN.SS. el 41% que quedan por desarrollar deberían ser viviendas de protección oficial y también en este Plan, en definitiva, en algunas zonas el 44% de las viviendas serían protegidas y en la zona ferroviaria alcanza el 55%. En Ugartemendi el 100% y la media de viviendas de protección oficial es del 40%. Será más adelante cuando se concreten los tipos de vivienda protegida. Hay tiempo para ello. "<br><br>Debatido suficientemente el asunto, se somete a votación obteniéndose el siguiente resultado: |
| Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)<br>Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Abstentzioak: 4 ( Beasaingo EH Bildu)<br>Etorri gabeak: 2 ( EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)<br><br>Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena. | Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)<br>Votos en contra: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Abstenciones: 4 ( Beasaingo EH Bildu)<br>Ausentes: 2 ( EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)<br><br>En consecuencia, se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta. |
| b.- ARGITERIA PUBLIKOKO INSTALAZIOEN ETA ERAIKINETAKO INSTALAZIO ELEKTRIKOEN OINARRIZKO KONTSERBAZIO, ZAINTZA, KONPONKETA ETA BERRIKUNTZA ZERBITZUAK, UDAL GIS PLATAFORMAREN EGUNERATZE ETA MANTENTZE ZERBITZUA, EKITALDIEN | b.- PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN DE LOS SERVICIOS DE CONSERVACIÓN BÁSICA, SERVICIO DE RETEN, SERVICIO DE REPARACIÓN Y RENOVACIÓN DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO E INSTALACIONES ELÉCTRICAS DE LOS EDIFICIOS MUNICIPALES, |

| | |
|---|---|
| INSTALAZIO ELEKTRIKOA, AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA, BAI ETA HORIEK MANTENTZEKO BEHARREZKOAK DIREN MATERIALEN HORNIDURA ETA ESKAEREN KUDEAKETA ZERBITZUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA. 2020ZEBO0071<br><br>Ezagutzera eman da Kontratazio Mahaiaren ondorengo proposamena: | SERVICIO DE ACTUALIZACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LA PLATAFORMA GIS MUNICIPAL, INSTALACIÓN ELÉCTRICA DE EVENTOS, ASESORAMIENTO Y ASISTENCIA TÉCNICA, ASÍ COMO EL SUMINISTRO Y GESTIÓN DE PEDIDOS DE LOS MATERIALES NECESARIOS.<br><br>Se ha informado la propuesta de la Mesa de Contratación: |
| "***1.-*** *2020-11-26. Plenoak erabaki zuen lizitazio prozedura eta plegu administratibo nahiz teknikoa onartzea (prozedura irekia eta erregulazio harmonizatua), aipatutakoa kontratatzeko.*<br><br>***2.-*** *2020-11-30. Euskadiko kontratazio plataforman lizitazioa iragartzea.*<br><br>***3.-*** *2021-01-04. Proposamenak aurkezteko azken data.*<br><br>***4.-*** *Data horretan enpresa lizitatzaile hauek aurkezten dira: OHL SERVICIOS INGESAN, S.A., TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L., TECUNI, S.A.*<br><br>***5.-*** *2021-01-11. Lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren, kontrataziio mahaiak erabaki zuen, hiru enpresa lizitatzaileak lizitazioan parte hartzea onartzea.*<br><br>***6.-*** *2021-01-14. B artxibo elektronikoa irekitzen da eta formula automatikoen bidez ebaluatu ezin diren irizpideei dagokien dokumentazioa, bokal teknikoari helarazi zitzaion, aztertu eta ebaluatu ahal izateko.*<br><br>***7.-*** *2021-03-01. Kontratazio Mahaiak ontzat eman du Memoriarekiko eman den txostena (I Eranskina), gehienez ere 50 puntuekin baloratzen dena. Hirurek gainditu egin dute, karatulako 9. atalean ezarritako atalasea (%50a), hurrengo fasera pasatzeko.*<br><br>*Lizitatzaileek fase honetan lortutako puntuazioa honako hau izan da:* | ***1.-*** *26-11-2020. El Pleno acuerda dar inicio al procedimiento de licitación (procedimiento abierto y sujeto a regulación armonizada) y aprobación de pliego administrativo y técnico para la contratación indicada.*<br><br>***2.-*** *30-11-2020. Publicación de la licitación en la plataforma de contratación de Euskadi.*<br><br>***3.-*** *04-01-2021. Fecha fin de presentación de proposiciones.*<br><br>***4.-***. *A esa fecha, se presentan las siguientes empresas licitadoras: OHL SERVICIOS INGESAN, S.A., TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L., TECUNI, S.A.*<br><br>***5.-*** *11-01-2021. Calificada la documentación presentada por las licitadoras, la mesa de contratación acuerdo admitir a participar en la licitación a las tres empresas licitadoras.*<br><br>***6.-*** *14-01-2021. Se procede a la apertura del archivo electrónico B y se pasa la documentación relativa a criterios no evaluables mediante fórmulas automáticas a estudio y evaluación del vocal técnico.*<br><br>***7.-*** *01-03-2021. La Mesa de Contratación, da por bueno el informe (Anexo I), emitido en relación a la Memoria puntuable como máximo con 35 puntos. Las tres empresas superan el umbral mínimo establecido en el apartado 9 de la carátula (50%) para pasar a la siguiente fase.*<br><br>*La puntuación obtenida por las licitadoras en esta fase es la siguiente:* |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| VALORACION DE LA MEMORIA TECNICA: 35 PUNTOS<br>RESUMEN PUNTUACIONES OBTENIDAS | | | | | |
| Licitador | Esquema operativo y organizativo<br>17 puntos<br>* esquema operativo y organizativo 12 puntos<br>** garantía respuesta servicio de reten 5 puntos | | Medios humanos<br>9 puntos | Actualización inicial, señalización y mantenimiento de la aplicación gis<br>9 puntos | Total, puntos |
| | * | ** | | | |
| OHL<br>Servicios-Ingesan | 5,5 | 3 | 3 | 7 | 18,5 puntos |
| | * | ** | | | |
| TAPIA INSTALACIO ELEKTRIKOAK | 10 | 4 | 7 | 3 | 24 puntos |
| | * | ** | | | |
| TECUNI | 11 | 4 | 8 | 8,5 | 31,5 puntos |

**8.-** 2021-03-02. C artxibo elektronikoa irekitzea. Lizitazioa prezioa, gehienez ere 65 puntuekin baloratzen dena. Proposatutako prezioak ondorengoak izan dira:

**8.-** 2-03-2021. Apertura del archivo electrónico C. Precio de licitación, puntuable como máximo con 65 puntos. Los precios ofertados han sido los siguientes:

| BALORATUTAKO KONTZEPTUA<br>Concepto valorado | OHL<br>SERVICIOS -INGESAN | TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK | TECUNI |
|---|---|---|---|
| | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *a- Oinarrizko kontserbazio-lanetarako eta erreten-zerbitzua*<br><br>*a- Trabajos de conservación básica y servicio de reten* | *19.114,79 €* | *19.114,79 €* | *19.114,79 €* |
| *b1- 1. mailako ofiziala, eguneko lanaldian:*<br><br>*b1- Trabajo de oficial 1ª en jornada diurna* | *26,71 €/hora* | *26,71 €/hora* | *26,71 €/hora* |
| *b2- 1. mailako ofiziala, gaueko lanaldian:*<br><br>*b2- Trabajo de oficial 1ª en trabajo nocturno* | *32,05 €/hora* | *32,05 €/hora* | *32,05 €/hora* |
| *b3- 1. mailako ofiziala, igandeko eta jaiegunetako lanaldian:*<br><br>*b3- Trabajo de oficial 1ª en trabajo dominical y festivos* | *37,40 €/hora* | *37,40 €/hora* | *37,40 €/hora* |
| *b4- Ingeniari elektrikoa, eguneko lanaldian:* | *33,54 €/hora* | *33,54 €/hora* | *33,54 €/hora* |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *b4- Trabajo de ingeniero eléctrico en jornada diurna* | | | |
| *b5- Jasogailuaren prezioa orduko:* | *18,55 €/hora* | *26,70 €/hora* | *26,70 €/hora* |
| *b5- Precio/hora del medio de elevación* | | | |
| *c- Eskaerak kudeatu, jaso eta kontrolatzeagatik hornitutako materialaren unitateko prezioen gaineko gehikuntzaren %* | *0,50 %* | *5 %* | *5 %* |
| *c- % de incremento sobre precios unitarios del material utilizado en la realización de los trabajos objeto del contrato en concepto de pedidos, recepción y control* | | | |

| | |
|---|---|
| ***9.-*** *OHL SERVICIOS INGESAN, S.A., kasuan egiaztatu da:*<br>• *Altxatzeko bitartekoen prezioa/ordua eskaintza anormalaren edo neurrigabearen presuntzioan dagoela.*<br>• *Kontratuaren xede diren lanak (eskaerak, harrera eta kontrola) egiteko erabilitako materialaren unitateko prezioen gaineko igoeraren ehunekoa eskaintza anormal edo neurrigabearen presuntzioan dagoela.* | ***9.-*** *En el caso del licitador OHL SERVICIOS INGESAN, S.A., se constata que:*<br>• *El precio/hora del medio de elevación se encuentran incurso en presunción de oferta anormal o desproporcionada.*<br>• *Que el % de incremento sobre precios unitarios del material utilizado en la realización de los trabajos objeto del contrato en concepto de pedidos, recepción y control se encuentran incurso en presunción de oferta anormal o desproporcionada.* |
| ***10.-*** *2021-03-09. OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.ri errekeritzen zaio bere eskaintza justifikatzeko.* | ***10.-*** *09-03-2021. Requerimiento a licitador OHL SERVICIOS INGESAN, S.A., para que justifique su oferta.* |

| | |
|---|---|
| ***11.-*** *2021-03-12. OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.ren erantzuna errekeritutakoarekiko. Erantzunaren analisia:*<br><br>*"Karatularen 9. puntua. Irizpide matematikoak: B atala: b5 (jasogailuaren prezio/orduko: 30 €).*<br><br>*Ezohiko edo neurriz kanpoko eskaintzatzat hartuko dira atal honetan adierazitako orduko prezioen %11tik gorako baja ematen duten eskaintzak.*<br><br>*OHL SERVICIOS INGESAN enpresak orduko 18,55 euroko prezioa eskaintzen du, hau da,% 38,17ko baja, atalerako ezarritako% 11ko muga gaindituz eta ezohiko edo neurriz kanpoko baja-presuntzioa eraginez.*<br><br>*Aurkeztutako memoria teknikoan (19. eta 20. orrialdeak), zerbitzurako 18 metroko saski bat proposatzen da renting-ean, 24 h 365 eguneko bitarteko hori bermatuz.*<br><br>*Kontuan hartuta urteko aldi baterako renting baten kostuak askoz handiagoak direla ekonomia eta finantza-memorian bitarteko igoeren kontzeptuan egotzitakoak baino, OHL SERVICIOS INGESAN erakundeari eskatu zitzaion eskainitako prezioa justifikatzeko.*<br><br>*Errekerimendu horri erantzunez, OHL SERVICIOS INGESAN erakundeak honako hau adierazi du:* | ***11.-*** *12-03-2021. Respuesta al requerimiento por parte de OHL SERVICIOS INGESAN, S.A. Análisis de la misma:*<br><br>***"****Punto 9 de la caratula. Criterios matemáticos: Apartado B: b5 (Precio/hora para medio elevación 30 €/hora)*<br><br>*Se considerarán ofertas anormales o desproporcionadas aquellas ofertas que ofrezcan una baja superior al 11% de los precios/hora señalados en este apartado.*<br><br>*OHL SERVICIOS INGESAN oferta un precio de 18,55 €/hora lo que supone una baja del 38,17% superando el límite del 11 % establecido para el apartado e incurriendo en una presunción de baja anormal o desproporcionada*<br><br>*En la memoria técnica presentada, (páginas 19 y 20), se propone para el servicio un camión cesta de 18 metros en renting, garantizando así este medio 24 h 365 días.*<br><br>*Habida cuenta de que los costes de un renting para un periodo anual son muy superiores a los imputados en concepto de medios elevación en su memoria económico financiera, se requirió a OHL SERVICIOS INGESAN, la justificación del precio ofertado.*<br><br>*En respuesta a ese requerimiento, OHL SERVICIOS INGESAN indica lo siguiente:* |

*En la memoria técnica presentada, (páginas 19 y 20), se propone para el servicio un camión cesta de 18 metros en renting, garantizando así este medio 24 h/365 días".*

*"Ello no es óbice, para entender que el servicio no pueda prestarse, y NO quiere decir en ningún caso, que si Ingesan resultara adjudicatario del servicio, NO se fuera a cumplir con lo ofertado, ya que* ***gran parte del coste de ese servicio, esta soportado por los gastos generales de la Delegacion Norte de Ingesan****, y no solo de este contrato, y han sido estimados según oferta de nuestros proveedores de referencia*

*"Además, en nuestra modestia, de la consideración de precios hora para el uso de equipos de elevación se "sobre-entiende" que la plataforma solo será necearía según necesidades y no de forma continuada. Aun así, Ingesan, ha ofrecido un servicio de valor añadido, ya que se requería un* ***aseguramiento del servicio prestado****, por ello Ingesan a su cuenta y riesgo contra los gastos generales de la Delegacion Norte, ofrece ese valor añadido al Municipio de Beasain y en el servicio de Alumbrado Municipal que será donde mayormente se utilice."*

| TXOSTENA | INFORME |
|---|---|
| *Memoria teknikoaren balorazioan positiboki baloratu zen eta OHL SERVICIOS INGESAN erakundeak egindako eskaintza puntuatu zen, hots, 18 metroko kamioi saski bat rentingean izatea, horrela bermatuta "altxatze-bitarteko" bat izatea, 24h/365 egunekoa.*<br><br>*Horrek desfasea ekar dezake proposatutako renting-zerbitzuari eusteak dakartzan kostuen eta zerbitzu-eskaera errealen artean, baina kontuan hartuta eskainitako prezioa justifikatzeko emandako arrazoia, hau da:* | *En la valoración de la memoria técnica se valoró positivamente y se puntuó el ofrecimiento realizado por OHL SERVICIOS INGESAN de disponer de un camión cesta de 18 metros en renting, garantizando con ello el contar con un "medio de elevación", 24h/365 días.*<br><br>*Ello puede implicar un desfase entre los costes que supone mantener el servicio de renting propuesto y las peticiones reales de servicio, pero teniendo en cuenta la razón dada para justificar el precio ofrecido, esto es:* |
| *"Gran parte del coste de ese servicio, esta soportado por los gastos generales de la Delegacion Norte de Ingesan.*<br><br>*"Por ello Ingesan a su cuenta y riesgo contra los gastos generales de la Delegacion Norte, ofrece ese valor añadido al Municipio de Beasain y en el servicio de Alumbrado Municipal que será donde mayormente se utilice."* | |
| *Kontsideratu da proposatutako bajak ez duela arriskuan jartzen kontratua behar bezala gauzatzea; izan ere, kontzeptu horrek eragindako kostuek ez dute kontratuaren prezioa garestituko, baizik eta enpresak ordainduko luke, adjudikazioduna izanez gero.*<br><br>*Karatularen 9. puntua. Irizpide matematikoak: C atala: eskaerak kudeatu, jaso eta kontrolatzeagatik hornitutako materialaren unitateko prezioen gaineko gehikuntzaren %.*<br><br>*Ezohiko edo neurriz kanpoko eskaintzatzat hartuko dira Udalak ezarritako %10eko igoeraren gaineko %50etik gorako beherapena eskaintzen dutenak.*<br><br>*OHL SERVICIOS INGESAN zerbitzuak unitate-prezioen gaineko% 0,5eko igoera eskaintzen du, hau da,% 95eko baja, apartaturako ezarritako% 50eko muga gaindituz eta, horrela, ezohiko edo neurriz kanpoko baja-presuntzioa eraginez.*<br><br>*OHL SERVICIOS INGESAN erakundeari eskatu zitzaion eskainitako prezioa justifikatzeko, eta,* | *Se estima que la baja propuesta no pone en peligro la buena ejecución del contrato, dado que los costes generados por este concepto no encarecerán el precio del contrato, ya que correrán a cuenta de la empresa, caso de resultar adjudicataria."*<br><br>*Punto 9 de la caratula. Criterios matemáticos: Apartado C: % de incremento sobre precios unitarios del material utilizado en la realización de los trabajos objeto del contrato en concepto de gestión de pedidos, recepción y control.*<br><br>*Se considerarán ofertas anormales o desproporcionadas aquellas ofertas que ofrezcan una baja superior al 50% sobre el 10 % de incremento que establece el Ayuntamiento*<br><br>*OHL SERVICIOS INGESAN oferta un incremento sobre precios unitarios de un 0,5 % lo que implica una baja del 95% superando el límite del 50 % establecido para el apartado e incurriendo así en presunción de baja anormal o desproporcionada.*<br><br>*Se requirió a OHL SERVICIOS INGESAN, la justificación del precio ofertado y en respuesta a* |

| | |
|---|---|
| *eskakizun horri erantzunez, OHL SERVICIOS INGESAN erakundeak honako hau adierazi du:* | *ese requerimiento, OHL SERVICIOS INGESAN indica lo siguiente:* |

*"En este caso, de nuevo Ingesan, considera que el **beneficio obtenido** por ese 0,5 %, de la compra de los materiales necesarios para el servicio, **como suficiente**, de acuerdo a las políticas de expansión del grupo y la búsqueda de sinergia entre contratos que nos permite trabajar con exigencias de beneficios mínimas tendentes a cero, en determinados contratos estimados como estratégicos para el grupo, como es el caso que nos ocupa en Beasain."*

| TXOSTENA | INFORME |
|---|---|
| *Aurreko puntuan bezala, uste da proposatutako bajak ez duela arriskuan jartzen kontratua behar bezala gauzatzea; izan ere, kontzeptu horrek eragindako kostuek ez dute kontratuaren prezioa garestituko, baizik eta enpresak ordainduko luke, adjudikazioduna izanez gero."* | *Al igual que en el punto anterior, se estima que la baja propuesta no pone en peligro la buena ejecución del contrato, dado que los costes generados por este concepto no encarecerán el precio del contrato, ya que correrán a cuenta de la empresa, caso de resultar adjudicataria."* |
| ***12.-** Horrenbestez, OHL SERVICIOS INGESAN erakundeak aurkeztutako eskaintza ez baztertzea eta baloratzea erabaki da.* | ***12.-** En consecuencia, se acuerda no rechazar la oferta presentada por OHL SERVICIOS INGESAN y proceder a su valoración.* |
| ***13.-** Aurkeztutako eskaintza ekonomikoak baloratu ondoren, enpresa lizitatzaileek puntuazio hau lortu dute:* | ***13.-** Realizada la valoración de las ofertas económicas presentadas, la puntuación obtenida por las empresas licitadoras es la siguiente:* |

*VALORACION DOCUMENTACIÓN RELATIVA A CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE LA UTILIZACION DE FORMULAS AUTOMATICAS: 65 PUNTOS*

*TABLA RESUMEN PUNTUACIONES OBTENIDAS*

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | |

| *Concepto valorado* | *OHL<br><br>SERVICIOS - INGESAN* | *TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK* | *TECUNI* |
|---|---|---|---|
| *a- Trabajos de conservación básica y servicio de reten* | *20 P* | *20 P* | *20 P* |
| *b1- Trabajo de oficial 1ª en jornada diurna* | *15 P* | *15 P* | *15 P* |
| *b2- Trabajo de oficial 1ª en trabajo nocturno* | *5 P* | *5 P* | *5 P* |
| *b3- Trabajo de oficial 1ª en trabajo dominical y festivos* | *5 P* | *5 P* | *5 P* |
| *b4- Trabajo de ingeniero eléctrico en jornada diurna* | *2 P* | *2 P* | *2 P* |
| *b5- Precio/hora del medio de elevación* | *8 P* | *5,55 P* | *5,55 P* |
| *c- % de incremento sobre precios unitarios del material utilizado en la realización de los trabajos objeto del contrato en concepto de pedidos, recepción y control* | *10 P* | *1 P* | *1 P* |
| *Total puntos* | *65 P* | *53,55 P* | *53,55 P* |

| | |
|---|---|
| ***14.-*** *Lizitatzaileek honako puntuazio hau lortu dute guztira:* | ***14.-*** *La puntuación total obtenida por los licitadores es la siguiente:* |

| | *OHL SERVICIOS - INGESAN* | *TAPIA INSTALACIO ELEKTRIKOAK* | *TECUNI* |
|---|---|---|---|
| *MEMORIA TECNICA 35 P* | *18,5 P* | *24 P* | *31,5 P* |
| *CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE FORMULAS MATEMATICAS 65 P* | *65 P* | *53,55 P* | *53,55 P* |
| *TOTAL PUNTOS* | *83,5 P* | *77,55 P* | *85,05 P* |

| | |
|---|---|
| Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Plenoa) ondorengo erabaki proposamena egiten dio: | En consecuencia, la Mesa de Contratación efectúa la siguiente propuesta de acuerdo al órgano de contratación (Pleno) |
| ***Lehenik***. *Argiteria publikoko instalazioen eta eraikinetako instalazio elektrikoen oinarrizko kontserbazio, zaintza, konponketa eta berrikuntza zerbitzuak, udal gis plataformaren eguneratze eta mantentze zerbitzua, ekitaldien instalazio elektrikoa, aholkularitza eta laguntza teknikoa, bai eta horiek mantentzeko beharrezkoak diren materialen hornidura eta eskaren kudeaketa zerbitzua TECUNI, S.A enpresari esleitzea, puntuazio gehien lortu duen enpresa delako.* | ***Primero***. *Adjudicar el contrato de los servicios de conservación básica, servicio de reten, servicio de reparación y renovación de las instalaciones de alumbrado público e instalaciones eléctricas de los edificios municipales, servicio de actualización y mantenimiento de la plataforma gis municipal, instalación eléctrica de eventos, asesoramiento y asistencia técnica, así como el suministro y gestión de pedidos de los materiales necesarios a la empresa TECUNI, S.A., por ser la empresa que mayor puntuación ha obtenido.* |

| | |
|---|---|
| ***Bigarren**. Esleipena baldintza-pleguen eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.*<br><br>***Hirugarren**. Urteko esleipen prezioa:* | ***Segundo**. La adjudicación se efectúa con arreglo a los pliegos de condiciones y a la oferta presentada por la empresa.*<br><br>***Tercero** Precio de adjudicación anual:* |

| | |
|---|---|
| ***a-** Oinarrizko kontserbazio-lanetarako eta erreten-zerbitzua* | *19.114,79 €* |
